**Eguberriak 2012**

Agenda, aholkuak... → 23/32

IGANTZI → 15Dantza taldearen saioa
20. urteurrena ospatzeko**DONEZTEBE → 18**Esther Pascalek jasoko du
Santa Luziako titorea**ARESO → 33**Ondare historikoa
berreskuratzeko hitzordua**BAZTAN → 38**Aimar Karrikak irabazi
du Mariano Izeta Saria**Aimar SAGASTIBELTZA | Eibar futbol taldeko jokalaria**

KIROLA → 48

Afizioa ofizio bihurtu duen leitzarra

Urte berriari «minutu gehiago jokatzeko aukera izatea» eskatzen dio jokalaria gazteak, eta taldeari dagokionez, «2. mailara igotzea».

ARGAZKIA: JON ARRIAGA

Osasun zerbitzuetan atzera pausua datorrela diote mediku-erizainek

UPNren gobernuak zerbitzuak eraldatzeko proposamena egin du eta mediku-erizainak eta udalak kezkatuta daude letorkenarekin. Osasun zerbitzuetan «atzera pausua emanen dela» diote.

Osasunbideko arduradunek, aldiz, eredu berria eraginkorragoa dela diote. Aldaketa ez da oraindik gauzatu baina hautsak harrotu ditu dagoeneko. **ERREPORTAJEA → 4-5**

ZOKKETAK → 3

Txartela egiteko
deitu **948 63 54 58**
telefonora

**ttipi-ttapa**
fundazioak**www.cajanavarra.com**Proiektu zk: **50063****zure laguntza behar du**Nafarroari eroldatutako
18 urtetik gorako
guztiek parte har
dezakete**ZUK
AUKERATU
ZUK ERABAKI 2013**comunul
cajanavarra

Saragueta

aholkularitza s.l.

ABOKATU BULEGOA

Felipe Saragueta. Abokatua

- Enpresa abokatutza eta aholkularitza
- Soziedade eta Merkantil aholkularitza
- Hirigintza aholkularitza
- Udal aholkularitza eta Udal aurreko erreklamazioak
- Kontratugintza
- Nazioarteko zuzenbidea
- Eraikuntza enpresa eta promotoreentzat aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa

fsaragueta@abokatua.com

Borja Mujika. Abokatua

- Abokatutza orokorra
- Finka administrazioa eta Jabetza Horizontala
- Herentziak, Donazioak
- Dibortzioak eta banaketak
- Jabetza aferak eta Zuzenbide pribatua
- Errenta kontratuak
- Diru Zorren erreklamazioa
- Aholkularitza juridikoa

bmugica@abokatua.com

Iparralde karrika 5, behea · 31780 BERA · 948 625 162



www.mueblesordoki.com

Plaza Zaharra, 27 | Erakusketa: Otsango industrialdea, 5 | LESAKA
T. 948 637 780 | e-posta: info@mueblesordoki.com

*PlanB!



Edozein ALTZARI

EROSTEAGATIK **Asteburuko ateraldia opari***

Baldintza: 500€tik goitiko gastuetan | Eskaintza baliagarria 2013ko urtarila arte



SUKALDEAK | DEKORAZIO PROIEKTUAK | EGONGELAK | LOGELAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK | ILUMINAZIOA | SOFAK | OSAGARRIAK



Duela sei urte hasi zen, Maite Lakar eskualdeko ondare ez materiala biltzen. 2006 eta 2008 bitartean, Bortzirietako 50 gizon-emakumeren testigantzak, ezagutzak eta istorioak

bideoan grabatu zituen. Bildutakoa antolatu ondotik, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Euskokultur Fundazioak lanaren aurkezpena egingen dute abenduaren 19an,

arratsaldeko 18:00etan, Berako Beralandeta eraikinean. Mendez mende eta ahoz aho transmititu den jakintza, ikus-entzunezko formatuan bueltatuko zaio gizarteari.

Maite LAKAR IRAIZOZ | Ahozko Ondarearen biltzailea

«Ahozko ondarea bildu eta jakintza horiek berriro gizarteratu behar dira»

E. IRAOLA

Zein da egindako lanaren helburua?

Ondare ez materiala biltzea. Bertako euskaraz gain, bizimodua, ohiturak, lanbideak, sinismenak, jokuak, kantuak... pertsona baten bizitza osatzen duten atal guztiak biltzea. Gero, eduki horiek guztiak berriz gizarteratzeko.

Nola egin duzue bilketak lana?

50 gizon-emakume elkarrizketatu ditugu. Gehienak 64 urtetik goitikoak. Herriko norbaitek bidailita joaten ginen elkarrizketatuengana. Lehenengo eguna elkar ezagutzeko, gaiak tan-teatzeko eta proiektua esplikatzeko erabili eta bigarren egunean egin genituen grabazioak. Pertsona bakoitzarekin batz bestea pare bat orduko grabazioak egin genituen. Leku bakoitzari ahal genuen etekin gehiena ateratzen saiatu gara. Sei urtez aritu gara bilket lanean. Milaka istorio, bizipen... batu ditugu. **Zer buruz solasten zuten?**

Denetarik bildu dugu, ahal genuen guztia. Eguneroko bizitzarekin lotura duten gaiak eta herriko bizitzarekin erlazioa dutenak. Garai hartako ohitura, sinismenak... Ekonomiaren inguruan ere solastu dute. Garaiko lanbideez



UTZITAKO ARGAZKIA

Maite Lakar, Euskokultur fundazioaren baitan, ondare ez materiala biltzen ari da.

BERRESKURAPENA

«Ondare hau betiko galtzen dugunean ohartuko gara duen garrantziaz eta hori da tristeena».

ONDORIOAK

«Idatzia eta irakurmenari izugarritzko garrantzia ematen zaio, baina ahozko transmisioa ez da lantzen. Ondare ez materiala galtzeaz gain, euskarari ere kalte egingen dio. Hizkuntzak bizitasuna eta naturaltasuna galtzen baititu».

behar dira. Asko dago egiteko eta landu beharreko zerbait da.

Eskualdean bildutakoa eskuragarri egonen da?

Interneten paratuko dugu eta materiala ere sortu nahi dugu: liburuak, DVDak... Horretarako Labrit eta Euskokultur Fundazioa aritzen gara elkarlanean. Baztanen gainera, fonoteka gisako bat jarri dute. Material guztia jarriko da eskuragarri, interesa duena, bertara joan eta kontsultatzeko. Baztango bilketaren aurkezpen ofiziala urtarrila edo otsailean izanen da. Bortzirietako lanaren aurkezpena berriz, abenduaren 18an egingen da Beran Beralandetan.

Zein da aurkezpen horren asmoa?

Herritarrek ikustea zer lan egin den eta proiektu honen berri ematea. Hau ez baita hemen hasi eta hemen bukatzen. Asko bildu dugu, baina oraindik asko dago biltzeko. Elkarrizketatuei aurkezpen egunean nolabaiteko omenaldi edo eskertza egin nahi diegu. Beraiek joaterik ez badute, xahar daudelako edo hil direlako familiei etortzeko deia egin nahi diegu. Bakoitzari bere grabazioaren kopia bat ematen diogu. Proiektua zertarako den ikusten dute eta oso emaitza polita izaten da.



Nafarroako Osasun Zerbitzuak proposatutako eraldaketarekin 2008 urtea baino lehenagoko eredua jarriko litzateke indarrean.

OSASUNA → OSASUN SAILAK PROPOSATUTAKO ALDAKETA

Landa eremuko larrialdi zerbitzuak kolokan

Nafarroako Gobernuak zerbitzuak eraldatzeko proposamena egin du eta eskualdeko profesional eta erakundeak kezkatuta daude

Osasun zerbitzuetan atzera pausoa emanen dela diote neurriaren aurka daudenek. Guardia lokalizatuekin eskubide ugari urratuko direla.

Osasun Sailak, aldiz, eredu berria eraginkorragoa dela dio. Oraindik neurria indarrean ez badago ere, dagoeneko hautsak harrotu ditu.

Eneritz IRAOLA

Nafarroako Osasun Sailak, landa eremuko larrialdi zerbitzuak eraldatuko dituen proposamena jarri du mahai gainean. Berrantolaketa hau justifikatzeko dio, eredu berria «eraginkorragoa» dela eta «gastuak murrizten» direla. Landa eremuko larrialdi zerbitzuak ez dira ezabatuko baina proposatzen di-

tuzten aldagetak ematen badira, zerbitzua ez da berdina izanen. Gaur egun, larrialdi zerbitzuetan, mediku eta erizaina osasun etxean bertan egoten dira, dei bat baldin badago pertsona hori berehala artatzeko. Garbiñe Elizegi, Baztango alkateak azaldu digunez, 2008. urtea baino lehenagotik zegoen sistema berrezarri nahi da «guar-

dia lokalizatuak jarri nahi dira puntu askotan, hala, langilea osasun etxetik 15 kilometrotara egon daiteke. Profesionalak ordu gehiago egingen dituzte, diru gutxiagoren truke». Ordezkaritza sindikalak, profesionalak eta udalek antolaketa berriari uko egin diote. Baina, Nafarroako Gobernuak dekretu bitartez erabakia inposatu dezake.

LANPOSTU ALDAKETA ETA KALERATZEAK

Larrialdiko postu horiek oposaketa bidez lortzen dira. Elizegik lanpostuak egoera berrira moldatu beharko dituztela dio eta arazo ugari sortuko dituela horrek «aldaketa indarrean jartzean, lanpostu horiek moldatu egin beharko dituzte. Aukeraketa prozesu bat egin beharko da, lantoki berriak aukeratu beharko dituzte. Nahasketa

handia izanen da». Kaleratzeak ere izanen direla dio «Nafarroa mailan 60 lanpostu galduko dira, Baztango kasuan, erdiak geratuko lirateke».

EREDU DESBERDINAK

Gure eskualdeko osasun etxe guztiek ez litzukete zerbitzu berberak eskainiko. Osasun etxe handienetan edo jende gehien artatzen dutenetan presentzia fisikoa mantenduko dute. Do-

ZERBITZUAK OSASUN ETXEETAN

Doneztebe, Lesaka eta Elizondo.

- Presentzia fisikoa.
 - Lan egunetan: 15:00-08:00
 - Jai egunetan: 08:00-08:00

Leitza

- Presentzia fisikoa.
 - Lan egunetan: 15:00-20:00
 - Jai egunetan: 08:00-08:00
 - Bertze orduetan: Guardia lokalizatuak

Oronoz-Mugairi

- Guardia lokalizatuak.
 - Lan egunetan: 15:00-08:00
 - Jai egunetan: 08:00-08:00

Goizueta eta Urdazubi

- Egoera berezietarako larrialdi zerbitzuak herrian ez.
 - Leitza (Goizuetakoek)
 - Elizondon (Urdazubikoek)

HUTSUNEAK

«Profesionalek gehiago mugitu beharko dute eremu batetik bestera. Horrek arrisku handi bat dakar. Profesional horrek bere eremuko larrialdietako zerbitzua hutsik utziko baitu».

Garbiñe ELIZEGI
Baztango alkatea

neztebe, Lesaka eta Elizondoko osasun etxeetan beraz, medikua eta erizaina bertan egonendira. Leitzako kasuan, presentzia fisikoa izanenda, baina guardia lokalizatuekin osatuko dituzte orduak. Gainera Leitzak eta Iruztungo larrialdietako ekipoak batu egingo dira eta bi tokietan lan egin beharko dute. Goizueta eta Urdazubin berriz, egoera berezietarako larrialdi zerbitzuak mantenduko dituzte. Bene Agirre, Urdazubiko medikuak adierazi digunez «goizeko kontsulta pasatzen duen medikuak, arratsaldeko ordu batzuk egin beharko ditu eta guardiak egitera behartuko gaituzte». Oronoz-Mugairiko osasun etxean izanenda aldaketa handiena.

ORONÓZ-MUGAIRIKO KASUA

Hasiera batean osasun etxea ixtea planteatzen zuten arren, orain guardia lokalizatuak izatea proposatzen dute. Horren ondorioz, Elizegiren erranetan «erantzuna beranduago iritsiko da. Medikua eta erizaina ez daudenez batera, biak ez dira elkarrekin iritsiko. Askotan bata ezin ditu gauza batzuk egin bestea gabe». Hau da, Gartzain, Lekaroz, Irurita eta Basaburuan erantzuna beranduago izanenda eta horren ondorioz «lehen mailako eta bigarren mailako herritarrek sortuko dira» Elizegiren ustez.

GARBIÑE ELIZEGI, BAZTANGO ALKATEA

«Dirua aurrezteak bakarrik interesatzen zaio Gobernuari, ez dute errealitatea ezagutzen eta ez dute entzun nahi»

Garbiñe Elizegi, Baztango alkatea ez du zalantzarik, Nafarroako Osasun zerbitzuak hartutako erabakiaren arrazoiak hitz egitean «argi daukagu erabaki hau ekonomikoa dela». Euren kabuz, hartutako erabakia dela gaineratzen du «ez dute inondik ere kontuan hartu bertako profesionalak esaten dutena eta bertako herritarren ordezkariek eskatzen duguna». Neurri honen ondorioz galdetuta dio erabiltzaileek epe motzean, egunerokoa ez dutela «hainbeste nabaritutako». Luzera ordea, baietz uste du «profesionalek ordu gehiago sartu beharko dituzte eta gus-tura ez badaude, alde egingen dute». Hainbeste aldaketekin, lehen mailako arretak zentzua galtzen duela aipatzen du «arreta honen helburua prebentzioa da eta jendeak konfidantza edu-



Garbiñe ELIZEGI, Baztango alkatea

kitzea medikuarengan. Aldaketa asko izan behar bada, kalitatean nabaritutako da eta bere funtzioa galduko du. Profesionalak erreta badaude noski arreta ez da berdina izango. Hala ere kezkarria «urgentzietako erantzun denbora luzatu» egingo dela da bere iritziz. Nafarroako

Gobernua eta UPNek parte hartzea erabatekoa dela eta bilerak egin dituztela dio baina Elizegik ez dela hala izan azpimarratzen du «bilerak baztertzailak izan dira. Alde batetik, eskualde guztia elkartu gabe egin dituzte. Bileretan langileak, osasun zentroak eta ordezkariek batera egoitea eskatzen genuen, baina ez da hala izan». Abenduaren 11n agerraldia izanenda Parlamentuan esateko «ez gaudela ados planteatzen diren aldaketekin eta landa eremuko larrialdi zerbitzuak mantentzea eskatzeko» azaldu digunez. Eskualdean mobilizazioak egitea planteatzen ari direla dio Elizegik «lehen mobilizazioak eginda, Oronoz-Mugairiko puntua mantentzea lortu genuen. Orain ere egoera aldatzeko mobilizazioak behar badi-ra, izanenda dira».

BENEDICTO AGIRRE, ZUGARRAMURDI ETA URDZUBIKO MEDIKUA

«Lan orduak luzatuko dizkigute eta guardietan ere lagundu beharko dugu»

Benedicto Agirre, Urdazubiko medikuak da eta Gobernuak ezarri nahi duen aldaketen inguruan galdetuta ezjakintasuna handia dela dio «ez dakigu zer gertatuko den, Nafarroako Osasun Saitetik ohar batzuk bidali dituzte, baina gu ez gaude onartzeko prest». Urdazubiko kontsultan funtzionamendu orokorra «ez omen da aldatuko» baina profesionalen lan orduetan aldaketak egonenda direla dio «goizeko lanaldia egiten dugunok, arratsaldean ere orduak egin beharko ditugu. Guardietan ere parte har-



Bene AGIRRE, Urdazubiko medikuak

tu beharko dugu eta postu hori betetzen dutenekin ez dakigu zer

gertatuko den». Gaur egun 1.500 ordu inguru egin behar izaten dituzte mediku eta erizainek, neurri berriarekin «1.600 ordu baino gehiago» egin beharko dituztela salatzen du Agirrek. Mobilizazioak deitu dituzte eta «abenduaren 11, 17 eta 20an greba deialdia egin da». Orain arte osasun arloan egon diren gatazketan «mugimendu franko baina bakoitzak bere aldetik» jokatzeko zue-la aipatzen du, auzi honetan ordea «proposamenaren aurka egiteko jendea elkartu eta indarrak batu dituztela» uste du Agirrek.

PARLAMENTUAN BILERA

Abenduaren 11n parlamentuan agerraldia izanenda. «Eskualdeko ordezkariek eta osasun zentroetakoak han izanenda gara, esateko gu ez gaudela ados planteatzen diren aldaketekin eta eska-

tzeko landa eremuko larrialdi zerbitzuak mantentzea» dio Elizegik. Zonalde mailan dauden beste arazoak ere planteatuko dituztela dio «larrialdi zerbitzuen gaiari eusten diote, baina arazo gehiagorek badaude».

MOBILIZAZIOAK

Eskualde mailan mobilizazioak egitekotan dira. «Abenduaren 11, 17 eta 20an greba deialdia» egin dela aipatu digu Agirrek. Neurriari aurka egiteko «jendea elkartu eta indarrak batu» dituztela

uste du eta horrela agian proposamena gibelartzea posible izanenda dela.

Ezjakintasuna handia da. Gobernuak du azken hitza. Denborak erranenda landa eremuko larrialdi zerbitzuek etorkizunik ote duten ala ez.

**Nire txanda**

Koro IRAZOKI

Noiz arte 'vasca' izanen naiz?

Euskalduna naizela badakit, baina ez dakit noiz arte 'vasca' izanen naizen. Erdaraz mintzatzerakoan nahasten da Euskadikoa izatea 'vasco' izatearekin. Aldiz, ez da gauza bera gertatzen Nafarroakoak garenekin.

'El Gobierno Vasco' erraten delarik, argi eta garbi ulertzen dugu Euskadiko Gobernua dela, eta ez Nafarroakoa. Zergatik?. Nafarroakoa ere Euskadikoa bezain 'vasco' da.

TVEk 'El Pais Vasco' erraten duenean, zer erran nahi du?, beldur naiz hor ez dela Nafarroa sartzen...

Nor da 'El Consejero Vasco de salud?', Nafarroakoa ote da?, ez dut uste...

Dudarik gabe Amaia Montero 'la cantante vasca' da, baina Aurora Beltran seguraski 'la cantante navarra' bezala aurkeztuko digute.

Iduritzen zait, erdaraz guri buruz solasten dutenean, nafarroak gure identitate euskalduna (vasco-vasca) galtzen dugula. Edo kentzen digutela...

«Iruditzen zait, erdaraz, nafarroak gure identitate euskalduna galtzen ari garela»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Eguberrietarako albiste txarrak

Berri txarrak bata bertzearen ondotik etortzen omen dira. Krisia, langabezia, istripuak...

Baina azkenekoak hondoa jota utzi gaitu: Belengo estalpean ez omen zen ez mandorik, ezta idirik ere! Aita Santuak jakinarazi du bere azken liburuan (ikerketak sakonen ondotik, pentsatzen dut). Nola osatuko dugu bada orain jaiotza? Beharrik Olentzero ikusi dugun Lesakan ikatz egiten!

Nabarmentzekoak

**Inaxio PERURENA**
300 kilokoarekin ezin

Nahi eta ezin. 300 kiloko harritzarra bizkarretzeko bi saiakera egin zituen Inaxiok azaroaren 25ean Leitzako Amazabal pilotalekuan, baina ezin izan zuen jaso. Hurrengoan beharko du!

**Iñaki OTXANDORENA**
Pilota profesionala utzi du

Asegarceko pilotari moduan azkeneko partida jokatu zuen Oronozko atzelariak azaroaren 24an Labriten. Emaztea eta seme-alabekin zela, lagunek eskainitako txapela jaso zuen.

**Irune ELIZAGOIEN**
Panderojole gazte onena

Euskal Herriko trikitilari gazteen txapelketan Itsaso ahizparekin batera bikotekako sari guztiak eskuratzear gain, panderojole onenarena jaso zuen Irunek abenduaren 3an Zaldibarren.

Atzera begira → 2002.12.19 / TTIPI-TTAPA 340 zbk.



Igantzik azken saskigileekin solasean

Garai batean, aldi berean lan egiten zuten 35 saskigile izan omen ziren Igantzin. Baina duela hamar urteko erreportajearen tituluak zioenez, 'Plastikoaren garaiak hondoratu du indartsu izan zen saskigintza ofizioa'. Bere garaian, Pasaiaiko portuan arraina deskargatzeko itsasareta edo Diputazioko kamioneroek, brea edo grabilla zabaltzeko aunitz eramaten zituzten Igantzitik. Jesus Mari Sein, Eleuterio Migelena eta Pascual Iguzkiagirre izan genituen solaskide, baina lehenbizikoa bakarrik aritzen zen oraindik ofizioan: «Okinek nahiago du-te betiko saskia, ez baita plastikoa bezala beroarekin beratzen» zioen Seinek.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Martin Larraalde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senperoko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	38€	Europa	56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	32€
Ipar Euskal Herria	56€	Amerika eta Australia	124€	Leitza	16€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Bortziritako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua



Kolaborazioak

Mendi aldera ihesi

Joseba URROTZ

Halaxe ibiltzen da gero eta hiritar edo kalekume gehiago. Beti izan da ohitura hori, baina ematen du azken boladan indarra hartzen ari dela; nahikoa da ikustea igande arratsaldetan Belatetik harat, Iruñea aldera sortzen diren auto ilarak.

Ematen du aurten inoiz baino jende gehiago etorri dela Leurtzako urtegiatara, behar bada 40.000 lagun, errax erraten da... Eta pelegrinazioa ez zen abuztuarekin edo udarekin akittu ez, uztaila "uzta"-ren garaia baldin bada ere, itxuraz urriko fruituak estima handiagoa dute. Onddo, eltzaur, gaztainak... ematen du *urriak* direla, horregatik da akaso Urria hilabete horren izena? Gosea, zerbait debalde eskuratzeko irrika edo eztakit zer den, baina hainbat egunetan benetako okupazioa gertatzen da mendian; ehiztariak (hauek ere kejo) eta turistak barra-barra.

Eta honek zer etekin uzten die gure herriei? Deus gutti. Non eta ez duten jatetxeek aprobetxatzen otorduak emateko, eta hau ere itxuraz gero eta guttiago; gauden garailetan, aurreztu nahian edo, seguraski aunitzek euren bazkaria ekarriko baitute.

Oraindik aunitzek ez dugu ikusten turismoa aukera bat dela gure inguruan diru pixko bat biltzeko, bertze aldera begiratzen dugula ematen du. Aunitzek nahiago luke ez balitz kanpotarrik etorriko gure bazterrak nahastera. Baina nahi ala ez, hemen daude, eta ez dirudi geroz eta guttiago etorriko direnik.

Erran bezala, bertze aldera begirata ez dugu deus lortzen. Udalek esfortzua eta lana egin behar izaten dute azpiegiturak garbi eta osorik mantentzeko. Leurtzako urtegia adibidez, Urrozko eta Labaingo udalen ardura da. Zenbat diru utzi diete bisitariak herri hauei? Deus gutti. Gainera, Nafarroako Gobernuak laguntzak murriztu ditu. Zertarako edo zergatik egin behar dugu guk lan edo bisitarien zat bazterrak txukuntzen aritu... gero haiek eguna ederki, debalde pasatu eta alde egiten badute, guk probetxurik atera gabe? Etekinik lortzen ez badugu?

Nik behinik behin ez dut ulertzen, uste dut badea zerbait egiten hasteko garaia.

«Zertarako edo zergatik egin behar dugu guk lan bisitarien zat bazterrak txukuntzen, gero haiek eguna ederki, debalde pasatu eta alde egiten badute, guk probetxurik atera gabe? Nik behinik behin ez dut ulertzen, uste dut badea zerbait egiten hasteko garaia»

Eguberriak

Jexux BULDAIN

Eguberria berez, egunak luzatzen hasten direla eta ondorioz, egun berriak heldu direla ospatzeko jaiak dira. Horretaz gain, kristautentzat, eguberri eguna handia da, Jesukristoren jaio-tza ospatzen baita. Gizarteak onartuta duen ohitura honek, *harrapatu* egiten gaitu. Azkenean guk ere, eguberriak, modu berezian ospatzen ditugu: familiaro giroa, lagunak, opariak, olentzeroren etorrera, erregeen etorrera, urtearen amaiera eta urte berriaren hasiera. Egun gutxitan gauza asko pasatzen dira eta emozioek dantza egiten dute. Egun hauetarako, umorea eta bakea nahi ditugu gure inguruan. Sensibleagoak gaude eta eguberrietan *sinistu* edo ez *sinistu*, egun berezi hauetan barneratzen gara. Gure inguruan, famili-kideak ditugu: seme-alabak, anaiak-arrebak, gurasoak, aiton-amonak etab. Ba-koitzak bere modura biziko ditu eta modu guztiak dira onargarriak! Emozio pilaketa handia dago. Batzuk, bizitza hasi berri baten atarian daudelako eta beste batzuk, bizitzaren bukaerara gerturatzen ari direlako. Horrelakoetan, *bizitzaren legea* aipatuz, lasaitzen gara. Tartean gaudenak, lasaia egoteko moduan gaude. Tartean gaudenak, haurrak eta aiton-amonak ulertzeko eta beraien emozioekin bat egiteko adimena izan behar dugu. Beraiek, oraindik eta emozio handiagoarekin biziko dituzte eguberriak eta gure ulermen gaitasunak, zerikusi handia izango du, beraien emozio iturrian. Eguberrietako egunetan sortzen den magia indartzeko, gure inguruko herriak eta hiriak dekoratzen diren moduak zerikusia du. Urte guztian ikusten ez diren argiak, izarrak, irudiak... ikusten dira. Horretaz gain, plaza eta kale nagusietan, gabonetako soinu eta kantak entzun ditzazkegu. Guzti honek, gure emozioak dantzan jartzeaz gain, indarberritu ere egiten gaitu. Eguberriak ospatzen ditugu eta aldi berean, egoera berriak amesteko garai egokia da. Eskatutako opariak ailegatzen zaizkigu eta horrek gure amets ahalmena indarberritzen du. Olentzero eta errege-magoei begi honez begiratzen diegu, gure opariak eta gure familiakoenak ekartzen dituztelako eta esan bezala, gure ametsak betetzen laguntzen digutelako. Beraz, inguruak badauka zerikusia gure amets ahalmenarekin. Inguru ongi egotea eta zaintzea komeni zaigu! Eguberriak, esperimentazio gune bat bezala behatzen baditugu, ikusiko duguna da, ametsak lortzeko, inguru prestatu behar dugula. Helburu nagusiak lortzeko, bat-batekoak ez dauka zentzurik. Bat-batekoa abiapuntua izan daiteke eta gero, lortu nahi duguna amestu egin behar dugu. Amets bat, gure barrutik ateratzen den izar moduko bat da. Gure indarrak mantentzen du bizirik eta bizirik mantentzen dugun bitartean, eguberrietako izarrak bezala, argitsua izango da. Eguberri on eta urte berri on!

Irakurleak mintzo**Eguberri eta Urte Berri on!****TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA**

Eskua artean duzun al-dizkari hau izanen da urteko azken Ttipi-Ttapa. Beraz, Eguberri eta Urte Berri on opa dizuegu modu batean edo bertzean aldizkaria hamabostean behin 6.000 etxetara ailegatzea posible egiten duzuen guzoi. Lehenik herriz herri ditugun berriemaile, laguntzaile, argazkilaria eta argazkizale guziei. Zuengatik ez balitz ezinezkoa izanen litzateke txoko bakoitzeko albiste berri izatea, zuek ezagutzen baituzue hiebekien bertatik bertara herri bakoitzaren nondik norakoak. Urte Berri On, modu berean, har-

pidedun eta irakurleei, hamabortzeroko hitzorduari hutsik egin gabe eusteagatik. Ezin ditugu alde batera utzi guzirean propaganda sartzen duten komertzio, zerbitzu eta erakundeak, baita diruz laguntzen duten udal eta mankomunitateak. Aurtan, Nafarroan erroldatutako harpidedun guzietan badute laguntzeko bertze modu bat: Nafarroako Kutxa Fundazioko *Zuk aukeratu, zuk erabaki* egitasmoaren barrenean TTIPI-TTAPAren 50.063 zenbakia duen proiektua aukeratzu. Zuei ez zaizue deus kostako eta aukeraketa bakoitzeko aldizkariarentzat 10 euro izanen dira. Internetez ere egiten ahal da, www.cajanavarra.com webgurean sartuta.

**Bota bertsoa**

Erratzuko eskolako ikasle handiak • Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Hezkuntza Departamentura igorritako bertsoak

Hemendik harat ta handik honat
Gabiltza gure aixturrekin
Aspertu Xamar ta triste gaude
Akitu murrizketekin
Non dago gure diru guzia
Hemen gaude galderekin
Iribas ongi aditu zazu:
ez gaude ados zurekin!

Gero ta diru gutxiago ta
Akitu zaigu epea
Herriarena denez eskola
Ez zara gure jabea
Etorkizuna gurea denez
eginen dugu bidea
hezkuntza on bat jaso nahi dugu
badugu eskubidea.

Hementxe dago jende guzia
diru pixkatzen beharrez
eta Iribas eskatzen dugu
murrizketa gehiago ez
batzuk kalean arnasestuka
etxerik gabe negarrez
ta bertze batzuk poltsa berotzen
bertzeen lanen bitartez.

Ikastetxeak ixten dituzu
ez zara gure jabea
materiala behar dugu guk
dirua ez da zurea
zu beti murrizketak eginez
akitu zaizu epea
zoaz eskoletatik kanpora
entzun zuk gure legea.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



bai euskarari zozketa BIZI EUSKARA!

SARIDUNAK

2012ko abenduaren 4an, 12:00etan, Arantzako Herriko Etxean eta udal idazkariaren aitzinean, saritu beharreko 2 zenbakiak zozkatatu dira.

Saridunek mankomunitatera deitu behar dute (948 634 125 tinoa) urtarriaren 11 baino lehen. Ordurako ez badira zenbaki saridunak agertzen, sariak eman gabe geldituko dira.

1.- Okila Zurgindegiak (Igantzil) BERTAKO PRODUKTUEN SASKIA

3837 zenbakia, Gure Arrano Elkartek (Lesaka) banatua

2.- Ugaldea Aholkularitzak (Bera) 2 LAGUNENDAKO MENUA ZALAIN JATETXEAN

4838 zenbakia, Iñaki Janaridendak (Lesaka) banatua

Sustatzaileak:

ziurtaginiaren elkartea



baieuskarari.org



Babesleak:



Prentsatik bildutakoak



«Bizitzaren erdia baino gehiago daramat pilotan, profesioaletan aritu naizen 15 urteez gain, ttikitan ere asteburu guzietan joaten nintzen frontoira, entrenatzera, jokatzer... Beraz, bizi osoa daramat pilotan. Ez dut bertzerik egin eta orain bide berria irekitzen zait. Lehenbizikoa lana bilatzea izanen da, eta pilotarekin bateragarria bada, hobe»

Iñaki OTXANDORENA
Oronoko pilotari ohia
D.NOTICIAS, 2012.11.24



«Gaur egun inoiz baino jende gehiago ibili da unibertsitatean eta ikasitakoa gizartearen mesedetan erabili ordez bakoitzak erabiltzen du beretako. Zeinen gutxi erabiltzen ditugun gaurko baliabideak gizartearen onerako!».
«Nafarroan gure egoera gero eta zailagoa da lau astapito haundus-tek gure aberastasu-nak kudeatzen dituzte-lako modu okerrean».

Patxi URRUTIA
Amaiturra
ARGIA, 2012.12.02

11 galdera labur

Langabezian, baina ez geldirik... Horrela definitzen ahal zaitugu?

Bost urtetan hori izan da nere egoera, langabetua baina denbora guztian mugimenduan. Zorionez, duela egun batzuk lana aurkitu dut, gaur egun oso zaila den zerbit.

Noiztik argazkizale?

Argazkiak ateratzen duela 30 bat urte hasi nintzen. Honen *errudun* Xabi Otero eta Antonio Arenal izan ziren.

Zer sentitzen duzu zure hainbat argazki ETBko Eguraldia saioa ikustean?

Gutxi ikusten dut telebista, eta jendeak komentatzen didalako enterratzen naiz. Hala ere noizbait ikusi dut, eta asko pozten naiz.

Argazkiak ateratzeko, paisaiak edo pertsonak?

Biak ditut gustoko. Urte asko igaro nituen persona argazkiak ateratzen. Orain berriz, azken urteetan, paisaiak ateratzen ditut gehien bat.

Kolorea edo txuribeltza?

Kasu honetan ere gustoko ditut biak. Pertsonentzako agian, nahia- go dut txuri beltza, eta paisaien- tzako kolorea.

Inauteriak, Sanferminak, Ferriak, Olentzero... zer nahiago duzu argazki on bat ateratzeko?

Argazki on bat

ateratzeko, momentua harrapatzea da sekretua.

Sare sozialek laguntzen dizute zure lana ezagutzera ematen?

Oso baliagarriak dira. Gauregun munda irekiak dauden leihoak dira.

Bizitzaren unibertsitatean ikasia zarela diozu Facebookeko profi- lean... Dena aprobatu zenuen?

Bizitzako unibertsitatea kalekoa da. Edozein unibertsitatean baino gehia- go ikasi dut.

Txondorrean ere lanean... Ikatzik izanen dugu Eguberrietan?


Bai, eta saltzekoa kalitatezkoa izan- go da. Aurten, ongi eta gaizki porta- tu direntzat egongo da ikatza.

Baratzea lantzen ere... Zer behar da tomate on bat lortzeko?

Eguzkia, ura eta eten- gabe zaindu. Maita- sun eta goxotasun pixka ba- tekin zainduz gero, hobe.

Hautzain ere ibiltzen za- ra... Zer egin behar da hau- rrrak ez aspertzeko?

Bide bakarra dago, jolasa. Ez dira inoiz aspertzen eta etengabeikas- ten dute, gaine- ra.



Ixidro ETXEBERRIA → Lesakako argazkizalea

elika
Dietetika... elikadura

Irati Andueza Larra
Itzea, 6 behean - BERA - T. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

- Aholkularitza dietetiko nutrizionala pertsonalizatua
- Gorputz konposizioaren analisiak: ura, muskuluak, gantzak...
- Dietoterapia: hipertentsioa, hiperkolesterolemia, diabetesa, arazo digestiboak...
- Kalorien eta glukosa azterketak

Karsuk®

Muebles de cocina
Meubles de cuisine
Sukaldeko altzariak

K

Karlos Pombal Sainz

C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

José I. Gonzalez Enguita
pinturak

barrikadak eta fatxadak
tel. 666 235 466

Alberto RETEGI
abokatua

948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

okaNe

HARATEGIA / URDAITEGIA
jokatu leku & kono
Tfno/Fax: 948 630 018
Kantillonberri 12 - BERA

GIZARTEA

GIZARTEA → IZEN-EMATEA ABENDUAREN 21A ARTE

Eguberrietako oporretan Haur Txokoa izanen da Arantza, Igantzi eta Etxalarren

Abenduaren 24tik urtarrilaren 7ra eskainiko da

TTIPI-TTAPA

Haurrei denbora libre jostagarria eta gurasoei mesede egiteko asmoz, aurten ere Haur Txokoa antolatu da Arantza, Igantzi eta Etxalarren abenduaren 24tik urtarrilaren 7ra. Lana, Familia eta Bizitza pertsonala uztartzeko Itun Mankomunitateak antolatu du Haur Txokoa, Nafarroako Gobernua- ren laguntzarekin eta Nafarroako Berdintasunaren eta Familiaren Institutuak sustatuta.

Abenduaren 24tik urtarrilaren 7ra eskainiko

da Haur Txokoa, goizeko 10:00etatik 13:00etara. Arantzan eta Etxalarren eskolan izanen da eta Igantzin Ziber esparruan. Arantzan eta Igantzin abenduaren 24a izanen dute jai eguna eta Etxalarren abenduaren 31. Herri bakoitzean, guttienez 10 pertsona eta gehienez 15 behar dira Haur Txokoa eskaintzeko.

Izen ematea abenduaren 21a baino lehen egin behar da, 948 635036 telefonora deitu edo ssblesaka@lesa-ka.net helbide elektronikora idatziz eta 10 euroko kuota ordainduta.

Haurrek beren denbora librean kulturarekin eta harreman afektiboekin jostatzen eta gozatzen ikasteko gune



UTZITAKO ARGAZKIA

Mankomunitateak sariak zozketatu ditu euskara ikasleen artean

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak helduen euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko, ikasleen ahalegina saritzeko eta euren motibazioa indartzeko, Bortzirietako Euskaltegiko ikasleen artean bi sari zozketatu zituen, bata urte osorako matrikula, eta bertzea telefono eramangarria euskara ikasteko kxo! aplikazioarekin. Zozketako sariak azaroaren 27an banatu ziren Bortzirietako Euskara Mankomunitatean, eta honako bi ikasle hauek izan dira sarituak: Daiana Dácosta Sousa, lehenbiziko urratseko ikaslea, eta Joxerra Martin Retegi, autoikaskuntzako eta goi urratseko ikaslea. Zorionak bioi! Argazkian bi saridunak ageri dira erdian, Beñardo Goietxe euskaltegiko irakaslearekin eta Jaime Iturria, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakariarekin.

bat da Haur Txokoa, solidaritateren eta berdintasunaren oinarritzen dena. Bidenabar, zerbitzu honen bitartez, gurasoei aukera bat ematen zaie seme-alaben heziketa

bateratu ahalizateko euren lanarekin edota denbora librearekin. Bortzirietako haur txokoak koedukazioan ikasteko eta elkartzeko gune bat izan nahi du, eta bertan

parte hartuko dutenak bultzatu nahi ditu, balore solidarioak praktikan jartzeaz gainera, errespetuaren eta elkar laguntzaren garrantziaz gogoeta egitera.

EYSKALDVNA
OSTATV JATETXEA

Bidasoa 5, BERA • T. 948 630 392 • 948 630 907

URTE ZAHARREKO AFARIA

Krabarroka-budina gari-zainzuriekin
Foie mi-cuit bloka ogi txigortu
eta masusta-konfiturarekin
Itsaski-krepea
Foie eta ondokoekin betetako hostorea

Limoi sorbetea cavarekin

Idi-azpizuna Oporto saltsan ondo
eta mendiko perretxikoekin

Tarta izozkiarekin

Ardoak: Arabako Errioxako ardo beltz
ondoak; Nafarroako ardo gorriak;
Rueda ardo zuria; Brut Nature 1882 cava.

Mahatsak eta kafea

F. LANCHAS

Akudoladorea eta berrizatzaila
Parket eta parket flotatzaila
Jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 - BERA

Hotel Churrut

Abenduak 15
12:30h
"Ardoaren zentzumenen
mundura hurbiltzea"
Hitzaldia eta
ardo dastaketa doan

Abenduak 16
Pintxo lehiaketa
Zetaz gurea
dastatzera!

Urte Zaharreko afaria Churrut Jatetxean!

Foruen plaza | BERA | T. 948 62 55 40 | T. 948 625 542
www.hotelchurrut.com

BIDASOA

TELAKAR - PERTSUNAK
BOTOARRAK - AUTOMATIZABARRAK
MOBILITATEAK - KONTINUITATEA

T.F. 659 971 442
BERA

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!

Berrira erosi taldea

GIZARTEA → 11:00ETAN LIZUNIAGAN

Mugalarreen hitzarmena larunbatean berrituko da

Bera, Etxalar,
Azkain, Biriatu,
Urruña eta
Sarako
hautetsiek
sinatuko dute

TTIPI-TTAPA

Bera, Etxalar, Azkain, Biriatu, Sara eta Urruñako udalek bortz urtero berritzen duten fazeien edo mugalarreen hitzarmena sinatuko dute abenduaren 15ean, larunbatean 11:00etan Lizuniagan, Sara eta Bera arteko 36. mugarrian dagoen Mahai-harrian. Hitzarmen historiko honen bidez, herri hauetako lurrak, belagiak eta ura aprobetxatzeko eskubidea ematen diote elkarri, baita 2007ko hitzarmenetik, oihaneko suteetan elkar laguntzeko birtartekoak paratu ere.

Hitzarmen honekin, herri hauetako abeltzainen ardi eta zaldi azien-dek eskubidea dute bertze herrietako bazkalekuak eta urak aprobetxatzeko. Hori bai, azien-dek bere kabuz askatasunean joan behar dute belagietara, hau da, abeltzainek beraiek ezin dituzte azien-dek batetik bertzerera eraman. Behi eta ahuntz azien-dek, aldiz, ez daude hitzarmenean sartuak eta honelakoak topatuz gero, isuna jasotzen ahal dute jabeek.

Larunbatean sinatutako hitzarmenak bortz urterako balioa duenez, 2017garren urtean izanen da hurrengo hitzordua Lizuniagan.

Korrika

Korrikaren hurrengo edizioa aurkeztu berri da. Andoainen hasiko da lasterketa, martxoaren 14an, eta Baionan



UTZITAKO ARGAZKIA

Frankismoan fusilatuen inguruko indusketak egin ditu Aranzadik

Frankismo garaian gertatua ikertze aldera, Aranzadi Zientzia Elkarteko ikerlariak hilerriko hobi komuna ireki eta indusketa lanak egin dituzte abenduko lehen asteburuan. Fusilatuen senitartekoak eta udaleko zinegotziak ere parte hartu dute zereginetan. Gerra Zibileko hilotzak zenbatu eta identifikatzeko helburua dute, Gerra Zibilak eta Frankismoak herrian eragindako kalteak zenbatu eta biktimei omenaldia eskaini nahi baitie Herriko Etxeak. 7 gorpuzkin aurkitu dituzte. Gehiago ere badirela diote, baina eremua ezin da gehiago aztertu. Omenaldi ekitaldia egin zitzaizen abenduaren 6an.

bukatuko da, martxoaren 24an. Aurtengo leloa *Eman euskara elkarriz* izanen da. Bortzirietan Korrikaren edizioa aurkezteko eta antolatzen hasteko lehen bilerak Beralandetan izanen da, abenduaren 13an, ortzegunarekin, 19:30ean.

Egur loteak

Joan den urtean bezala aurten ere udala arduratuko da egur loteetarako arbolak bota, egurra atera eta es-

katzaileak nahi duen tokiraino garraiatzeaz. Izaten ahal da pista bazterrean uztea edo etxeak atariraino eramatea tokia baldin bada horretarako. Loteak 5 Tona-koak izanen dira eta 200 euro ordaindu beharko da. Intesatuek 012ra deitu eta lotea eskatu behar dute abenduaren 16a baino lehen honako datu hauek emanez: lizen abizenak, telefonoa eta lotea eraman behar den lekua. Loteak esleitu ondoren 012

bidez deituko zaie interesatuei ordainketa egiteko eta ondotik loteak banatuko dira.

Ipuin lehiaketako sari banaketa

Bortzirietako haur eta gazteen ipuin lehiaketako sari banaketa egingen da abenduaren 14an, ortzirak arratsaldeko 18:00etan herri liburutegian. Berako liburutegiak eta Kultur Batzordeak antolatu dute aurten ere lehiaketa.

zalain
JATETxea - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
T. 948 631 106
w. www.zalain.com

zalain

%20ko deskontua
eguzki betaurreko
guztietan!!!!
abenduaren 15etik
urtarrilaren 5ra

Ostargi optika

Ber Artola Ferran
Optiko-optometrista
kol.zk: 9812

Bidasoa 8 BERA
Tfno: 948 630 753

LESAKA

GIZARTEA → EUROPEAN JOAN ZEN EGUNA

146 azienda plazaratu ziren Feria Egunean

Abeltzain
onenaren saria
Berako Joxean
Igoak eraman
zuen

Aitor AROTZENA

Euria izan zen protagonista azaroaren 29ko Bortzirietako azienda feria egunean. Halere, dena 146 azienda aurkeztu ziren, horietatik 108 zaltabereak ziren, 35 behi, batzuk bere aretzearekin, 2 zezen eta ahari bakarra.

Haragitarako behien kategorian lehenbiziko eta bigarren sariak, 190 eta 160 euro, Berako Begibeltzenekobordako Joxean Igoarentzat izan ziren eta hirugarrena, 100 euro, Iriberriko Ion Muñoarentzat.

Suitzen kategorian, 190 euroko lehen saria eta 100 euroko hirugarrena, Gillenbordako Francisco Javier Altzugararen bi bururentzat izan ziren. Bigarren saria, berriz, 160 euro, Berako Begibeltzenekobordara joan zen. Gainera, aurten lehen aldiz, Aspina elkarteak, abeltzain onenari saria eman zion eta hau ere Begibeltzenekobordakoarentzat izan da.

Zaldi azientetan, 125 euroko lehen saria eta

50 euroko hirugarrena Iriberriko Jon Muñoarentzat izan ziren. Bigarren saria, 95 euro, Miguel Angel Etxegarai beratarak eskuratu zuen. Joan den urtean bezala, pottoka, montura eta poney onenak ere saritu ziren. Honela, Marisol Otxotekok 100 euro eskuratu zituen pottoka onenarengatik, Maribel Indak 80 euro bere montura behorarengatik eta Jaime Etxegarai beratarak 70 euro poney onena plaza-ratzeagatik.

Ahariat, buru bakarra aurkeztu zuen Maria Soledad Etxepare le-sakarrak eta beretzat izan zen 50 euroko saria.

Baina azienda feriaz gain, Lesakako karrikek salmenta postuez gainezka egin zuten. Plazan, herri kirol saioa egin zen eta Sebastian Lizaso eta Amets Arzallus bertsolariak kantari aritu ziren kioskotik, preso senide eta lagunek hauen eskubideen aldeko elkarretaratzea ixilean egiten zuten bitartean.

AJOARRIERO LEHIAKETA
Asteazkenean egin zen Beti Gaztek antolatutako ajoarriero lehiaketa. 12 bikote bildu ziren, horietatik 5 Bortzirietako



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA ETA J.J. GUERRERO

Azienda lehiaketa, eskulangileak eta ajoarriero lehiaketa. Ferietako hiru osagai nagusiak.

Gorriak peñakoak, eta bertzeak, Arransurde, Bakailu Kuisine, Irain Guraso Elkartea, Irungo Mendizaleak, Euskal Artzainak Ameriketako Bittiria peña eta Zerbitzuen Elkartekoak.

Bortzirietako Gorriak taldeko Mertxe Etxepare eta David Galarza apezarentzat izan zen; bigarrena, Bittiria peñako Vicente Seisdedos eta Jexux Etxeparerentzat eta hirugarrena

Arransurdeko Jabier Legasa eta Imanol Lopezentzat. Jose Luis Sundegi Beti Gazteko presidentearen eta Peio Etxabide alkatearen eskutik hartu zituzten sariak.

ZERBITZUEN ELKARTEA

Zuzendaritza batzordea berriro dute merkatariak

TTIPI-TTAPA

Lesakako Zerbitzuen Elkartek urteko batzar orokorra egin zuen eta zuzendaritza berria izendatu zuen. Rosa Lasaga, Bixikiak dendakoa da presidente berria. Berarekin batera Loli Antxordoki, Antxordoki estetika zentrukoa; Naiara Alberro, Intzuri Optikakoa; Sandra Legasa, Oreka Nutrizio dendakoa eta Deñe Abuin, Katagorria dendakoa sartu dira zuzendaritza batzordean. Herrian, bertze hainbat lekutan bezalaxe, krisiaren eragina nabarmena dela diote «azken

bi urteetan denda batzuk itxi edo jabez aldatu dira». «Elkartean egiten den lana garai zailen aurre egiteko tresna garrantzitsua dela» uste dute elkarteko kideek eta baikortasunez hartu dute bazkide berrien etorrera: Ttipi Ttapa Fundazioa, Urmen-di autoeskola eta aholkularitza eta berriz ere ireki duten Osiña Moda eta Haizea Kafetegia.

Abenduaren 8ko tonbolan 40 sari inguru eman zituzten eta hilaren 10ean loteriako partizipazioak banatu zituzten.



OSPAKIZUNAK → 80 URTEKOEI OMENALDIA

Abenduaren 3an Bazkidearen Eguna ospatu zuen Larraburuak

Sei bazkide
omendu dituzte
aurten

Irune eta Itsaso

Bazkidearen eguna izan zuten San Frantzisko egunean Larraburuak. Lehenik meza nagusia aurten hildako bazkideen alde eta 13:30ean 70 lagun baino gehiago bazkaltzera bildu ziren Larraburura. Bazkalondan aurten 80 urte bete dituzten 6 kide omendu zituzten. Pello Apezetxea, Javier Indaburu, Juan Bautista Goienezte, Teresa Ariztegi, Jaime Sanzberro eta Esther Bereau. Denei oroigarria eman zitzaion eta ederki pasa zuten eguna.



ARGAZKIA: ITSASO ELIZAGOIEN

Larraburuak omendu zituen sei bazkideetatik bortz ageri dira argazkian.



ARGAZKIA: ANDONI IRIBARREN

Santa Zeziliako emanaldia Lesakan

Herriko hainbat trikitilari eta pandero jolek azaroaren 24an Lesakako Trikitixa Eskolakoekin batera Santa Zeziliako kontzertuan parte hartu zuten. Azken urteetan baino parte hartze handiagoa izan da oraingo honetan.



ARGAZKIA: LANDAGAIN ESKOLA

Xorroxin Irratia Landagain eskolan

Azaroaren 20, 21 eta 22an irratsaioak egin zituzten Landagain Eskolan. Haur Hezkuntzakoetatik hasita, 6. maila arteko ikasleek hartu zuten parte. Olerki, eguneko albiste, ingelesezko kantu eta abar prestatu zituzten herri osoak entzuteko.

**Maila guztietako
aleman-ikastaroak**

Ikastaro estandarra

Ikastaro trinkoak

Online ikastaroak

Itzulpenak, dokumentu administratiboak,
gestioak, enpresarialak, CV...

Ingeles, frantses eta txinera ikastaroak,
helduentzat, gaztekoentzat eta haurrentzat.
Hizkuntza-ikastaroak atzerrian



www.acornlanguages.com



Ja! Können
Wiedersehen hallo!
lesen & schreiben

Sprache lernen Danke!

Wie geht's?
gut! haben Nein!

Sprechen Sie Deutsch?
Aleman-ikastaro

hauek etorkizuna aldatzen laguntzen ahal dizute

Koskontako bidea 11. behea LESAKA (Mastegi Futbol-zelaiaren parean)

948 637 135

An advertisement for G. Lasaga. The top half features a background of a wood pellet stove with a fire burning inside. Overlaid on this is a dark red banner with the text '-%20 Pellet berogailuetan' in white. Below the banner, the text 'Abenduak 31 arte' is written in a smaller font. The bottom half of the advertisement has a white background with the company name 'G. Lasaga' in large red letters. Below the name, the text 'ITURGINTZA' is in bold black letters, followed by 'BERA • 609 808 756' in blue. At the bottom, the phrase 'Aurrekontua konpromisorik gabe.' is written in black.

KULTURA → ABENDUAREN 22AN

Dantza taldeak saioa eskainiko du 20. urteurrena ospatzeko

Abesbatzarekin batera emanaldia eskainiko du elizan

TTIPI-TTAPA

Hogei urte bete ditu herriko dantza taldeak eta hori behar bezala ospatzeko ekitaldi berezia antolatu da abenduaren 22rako. Dantza taldeak eta Abesbatzak, bertze musikari eta laguntzaileekin batera emanaldi berezia eskainiko dute 20:00etatik aitzinera elizan paratuko den eszenaleku berezian. Saioaren ondotik, herriko produktuekin osatutako saskiaren zozketa egingen da. Dantza taldeko kideak egunotan ari dira saskiaren txartelak saltzen.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Herriko dantza taldea San Migel eguneko emanaldian.

3-4 urterekin hasi eta helduak bitarte, 70 bat lagun biltzen dira dantza taldean. Ttikienek astero entsaiatzen dute eta helduak, gehien bat San Migeletako dantzak prestatzeko elkartzen dira.

Kultur Egunak

Azken urteetako ohi-turari eutsiz, Euskara Batzordeak antolatutako Abenduko kultur Egunak ospatuko dira hilaren 3tik 9ra. Lesakako Musika bandaren emanalditik hasi, turroia

eta errege opilak egiteko ikastaroarekin segitu, Leitzako Xagu antzerki taldearen emanaldia, Etxeko tresna zaharren istorioak erakusketak eta akautzeko, bizkotxo lehiaketa eta dastaketa. Bikain!

BORTZIRIAK

Taldeakako XIV. bertsolari txapelketa jokatu da

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako bertso eskolaren XIV. Taldeakako lehiaketa jokatu da egunotan. Abenduaren 14an, ortzirala, Berako Katakun 21:00etan *Beratarrak* (Julen, Patxi, Garaxi) Vs *Baztango irabazlea*. Abenduaren 21ean, ortzirala, Lesakako Atxaspin 21:00etan *Bigarren gaztaroa* (Silve, Iban eta X. Maia) Vs *Malerrekako irabazlea*. Abenduaren 22an, larunbata, Lesakako Teleboten 13:00etan *Humanistak* (Terre, Maddiane eta Egoitz) Vs *Lasante* (Erika, Josu, Tetxos). Arranon bazkaldu ondotik (16:00etan) *Bordakuk* (Lopez attalabak eta loar) Vs *Bardo Txapel-dunak* (Fdz Maritxalar anaiarrebak eta Mak). Zialdon 17:30ean jokatuko da lehenengo finalerdia eta Haizeguan 19:00etan bigarena. Finala Linddurrenbordan 20:30ean eta ondotik afaria. Otorduatarako izena emateko *bortzibertso@gmail.com*-en edo 618963011.

sarha
gizartearen elkarlagia

proiektuak 25 bako 1.948 63 06 99
31780 bera (navarra) www.sarha.net

FRANCOIS VANDERBEEK
FRANCOIS VANDERBEEK, ILL.
FRANCOIS VANDERBEEK, ILL.

BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

Gure Haragia
Nuestra Carne

IMANOL ITURRIA
ZURGINA

Enpresa eta partikular

T. 661 577 137
E-posta: imaiturria@hotmail.com

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontraburakotza laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenen
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Biltzila, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

GAZTE OIHUA

GIZARTEA → GAZTE MUGIMENDUA

Gaztetxeari tiraka kontzertua eta ekimen gehiago Lesakan

GAZTE OIHUA

Lesakako gazte asanbladak gaztetxearen beharra aldarrikatzen segitzen du eta horregatik, jada ohikoak bihurtu diren film emanaldi eta truke azokez gain, hainbat kontzertu antolatu ditu azkenaldi honetan. Izan ere, azaroaren 28an feribezpera izaki, Askatu eta Sutan taldeek alaitu zuten herria, Haizegoa eta Arrano ostaluetan kontzertuak joz. Bertzalde, abenduaren 6, besta egun arrotza izanik udaletxearekin batera auzolanen ibiltzeko deialdia zabaldu zuten, plaza eta inguruak moldatu eta txukuntzeko helburuarekin.


Biharamunean, abenduaren 7an, hainbatekimen egin zituzten gaztetxearen alde.

Atxaspi estatutik potetzen hasi, Arranon afori ederra egin eta bi kontzertu aditu eta musikaz gozatzeko aukera izan baitzen: lehenik ON taldeak jo zuen Arranon eta ondotik Selekta Stepia eta Kenitra (Bad Sound System) taldeak Haizegoan.

Horretaz gain aipatzekoa da ere, abenduaren zehar, dokumentalenguruko ziklo ttiibat ere antolatu dutela: *La Doctrina del Shock* bezalako dokumentalak izanen dira ikusgai errate baterako.

Beñaten aldeko elkartasun kontzertuak Kaxernan

Eskozian preso da goen Beñat Atorrastagasti Lesakarraren al-



doko elkartasun kontzertuak egin zituzten joan den abenduaren 1ean Berako Kaxerna gaztetxean Beñaten lagunek antolatutik Arratsko 10ak aldera, Xabier Silveira Beñaten lagun eta bertsolariak bi bertso bota ondotik, Estrikalla, Zuloak, Surfin Kaos eta Rat-Zinger-en doinuekin gozatzeko aukera izan genuen eta besta luzatu egin zen Zumitrenko eta OK3Ne DJ-ekin. Jende andana bildu zen Kaxernan elkartasun giro ederrean. Joan den azaroaren 17 lrunen egin dako kontzertuekin eta bertze hauekin, Beñat lagunari elkartasuna adierazi nahi izan diete.

AZKAIN

Kilika Gaztetxea etengabeko mugimenduan

TTIPI-TTAPA

Kontzertuak, tailerrak, filmak... eskaintza zabala ari dira ematen inguruko gazteak Kilika gaztetxearen birtartez. Azaroaren 11an Gartxot filma erakutsi zuten. Azaroaren 24an, 2ZIO taldearen kontzertuaren ondotik Azkaingo gazteen eskutik afterra izan zen gaztetxean eta otsailaren 2ko gazte egunaren deialdia zabaldu zuten, *Oai dunk tenorea* lelopean. Bertzalde, azaroaren 25ean Altxaneskatxa gazte talde feministak *Les Femmes du Bus 678* filmaren emanaldia eskaini zuen gaztetxean emazteen aurkako erasoaren salatatzeko nazioarteko egunaren kari. Ondotik xokolate esnea edanez, solasaldia egin zuten eraso sexistei buruz. Azaroaren 30ean, preso eta iheslarien aldeko elkarretaratzearen ondotik pintxoak eman zituzten Kilikan eta *Barrura begiratzeko Leihoak* dokumentalaren emanaldia egin zuten. Abenduaren 22an olentzero ospatuko da Azkainen eta gaztetxeko kideek antolatuko dute desfilea. Hitzordua 18:00tan izanen da ikastola parean. Arratsaldeko krakada ere Kilikako kideek emanen dute. Bertzalde abenduaren 29an larunbata, Mafia gaua antolatu dute Kilikan.

PRESOEN ALDEKO EGUNA SENPEREN

Senpere, Sara eta Azkaineko gazteek elkarlanean elkartasun eguna deitu dute Senperen abenduaren 15erako, Naia Lacroix euskal presoaren urtebetetzea kari. Eguerdiko 12etan elkarretaratzea egingen dute Herriko Etxe aintzinean, ondotik aperitifia eta bazkaria izanen dira Oxtikenian (erreserbatzeko deitu 06 01 21 59 94 zenbakira), arratsaldean argazki erraldoia atera eta Lotsagabeak, Humurao eta Arma Tiro Punk taldeekin gozatzeko aukera izanen da.



BORTZIRRIAK
expert

KONPONKETAK
ere egiten ditugu

%20
DESKONTUA
SUKALDE
ALTZARIEKIN

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortzirriak.com . www.bortzirriak.com

GIZARTEA → GURASO ELKARTEAREN BILERA

Hiru guraso daude orain Eskola Kontseiluan

Mikel Etxalar,
Ines Obregozo
eta Koro Zelaieta

Maidar PETRIRENA

Guraso Elkarteak bilera egin zuen azaroaren 26an. Bileran honetan 3 gaietaz hitz egin zen. Gai zerrendan agertzen ez zen gai bat baina garrantzi handia zuena, hain zuzen ere, Eskola Kontseilua osatzeara izan da. Orain arte Eskola Kontseiluan, 2 guraso zeuden ordezkari moduan, Mikel Etxalar eta Ines Obregozo, baina aurreko klase bat gehiago dagoenez, 3 gurasok egon behar dute. Mikel Etxalarrek akitzen du eta aldaketa tokatzen da. Inork in interesarik ez badu berak jarraituko duela aipatu zuen, baina hirugarren pertsona bat beharrezkoa dela. Koro Zelaieta boluntario atera da eta, beraz, eskola kontseiluan 3 guraso ditugu ordezkari, Mikel Etxalar, Ines Obregozo eta Koro Zelaieta.

Eguberriei begira

Abenduaren 21ean Mari Domingi izanen da goizeko 11etan frontoian. Ondoren luntxa eskainiko da. Abenduaren 24an Olentzeroren txanda izanen da. Azken urteetan bezala bi taldeetan banatuko dira. 0-8 urtekoak eskolako auzoa egingen dute, beheko eskolatik atsaldeko 4etan ateraz. Haundien taldea berriz, elizatarietik aterako da. Bukatutakoan denak frontoian elkartuko dira txokolatea jatera eta olentzerori muxuak ematera. Olentzerorako entsaioak abenduaren 14 eta 20an izanen dira jangela berrian, 16:00etan. Errege kabalgata urtarilaren 5ean egingen da.

Denboraldi bukaera kanpinean

Ariztagain kanpina itxita egonen da Eguberrietan, abenduaren 21etik urtarilaren 9ra bitarte. Aitzinetik, abenduaren 15ean, denboraldi bukaerako besta egingen



ARGAZKA: MAIDER PETRIRENA

Olentzerorako entsaioak abenduaren 14 eta 20an egingen dira jangela berrian.

dute. 16:00etan haurrendako jokuak; 17:00etan mus txapelketa; 18:00etan txokolatada; 18:30an bingoa eta 21:00etan denboraldi bukaerako afaria. Ondotik Dee Jays Endara eta Karaokea izanen dira.

Murrizketen kontra

Eskoletan jasotzen ari diren murrizketen kontra, Malerreka 6 Eskola Txikiek erabaki zuten 10 minutuko konzentrazioak egitea txandaka, eskolen atarietan.

Sunbillako goitiko eskolako atarian abenduaren 11n egin da goizeko 8:50ean.

Ulibeltzak mendi taldea

Azaroaren 24an afari goxo batekin eta argazkien emanaldiarekin eman zioten bukaera Ulibeltzak Mendi taldeak 2012ko irteerei.



ARGAZKA: ITZIAR MIKELPERIZENA

Joan den urtean bezala, aurreko klase ere Maridomingi etorriko da.



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

Trikitixa jaialdia Aurtizko bestetan

Azaroaren 24an hasi dira Sunbillan kinto besten ospakizunak. Hain zuzen ere bi kinto izan ziren besta hau zeukatenak, 1945 eta 1946 urtean jaiotakoak.

APARAN, S.A.

ERIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarniak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab.

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Erreserbak:
948 451 902 + 617 333 015

DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → ABENDUAREN 13AN

Esther Pascal jostunak jasoko du Zilarrezko Titarea Santa Luzia egunean

Goiz osoan
eskulangileak
izanen dira
elizatarian

TTIPI-TTAPA

Azken urteetan udalaren eta Cedernaren artean berreskuratutako ohiturari eutsiz, Santa Luziako feria ospatuko da Donezteben abenduaren 13an. Goizeko 10:00etatik 14:00etara eskulangileak izanen dira elizatarian eta Meza Nagusian Zilarrezko Titarea emanen zaio Esther Pascal jostunari.

Goizeko eskulangileen erakusketa eta salmenta postuetan Aitziber Erasun (metalak), Santiago Hualde (egurra), Fausti Juanikorena (jantzigintza), Itziar Berazadi (telarrak), Jose Luis Arozena (laxoa), Malu Alvarez (zilarra), Manex Landa (zilarra), Maria Salanueva (xaboiak), Andreu Smith (pos-

talak), Jose Luis Olaiola (egurra), Miguel Urroz (ezpelez egindako sukaldeko tresnak), Eneko Rabina (ogia), Mateo Brianceau (dekorazioa), Carlos Mindegua (gazta), Maria Irueta (kanutilloak), Jon Olaizola (egurra), Bittoriano Arzuaga (artilea) eta Joxepa Loiarde eta Zubietako taldearen talak izan dira.

Eguberrietako kontzertu berezia larunbatean

Larunbat honetan, abenduak 14, Eguberrietako kontzertu aparta izanen da 20:30ean elizan, azken urte hauetan ohiko bihurtzen ari diren parte hartzaileekin: Donostiako Udaleko Txistulari Taldea, Jose Ignazio Ansorenak zuzenduta, Erreka Dantza Taldea, Agorreta Musika eskolako ikasle eta irakasleak eta Mendi Abesbatza, Ion Irazokik



UTZITAKO ARGAZKIA

Mendi abesbatzak emanaldia eskaini zuen Beran abenduaren 3an, San Frantzisko eguna zela eta. Orain, herritarren aitzinean kantatzeko aukera izanen dute.

gidatuta. Mendi Abesbatzak azken urte hauetan antolatzen duen

kontzertu honek gero eta jarraitzaile gehiago ditu, gonbidatutako mu-

sikarien kalitate nabarmenari eta bertzeen lan onari esker.

ERREKA ELKARTEA

Ekitaldiz betetako urte bukaera prestatu du

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, urte bukaera mugitua izanen du Erreka elkarteak. Abenduaren 22an, Mendiaren Eguna ospatuko da. Ohiturari eutsiz, 07:30ean abiatuta, Errekek Bonozorrotz mendian duen buzoia bisitatuko dute mendizaleek. Menditik bueltan, 13:00etan mendizaleen poteoa egingen da herriko ostaluetan eta 14:30ean bazkaria Casino elkartearen. Aipatu, aitzinetik, 13:00 aldera, Eguberrietako saskiaren zozketa egingen dela elkartearen egoitzan.

Arratsaldeko 7:30ean, mendiari buruzko proiektzioa egingen da Leku Eder zineman, Alex Txikon mendizale handiaren eskutik. Abenduaren

24an, Saioa mendira irteera antolatuta dute.

Eta abenduaren 31n, urtea kirol eginez akitzeko bi hitzordu jarri ditu Errekak. 7:30ean urteroko mendi igoera Mendaur Mendira. Goian, behar bezala urte zaharra agurtu eta berriari ongi etorria emanen diote eta 10:30ean denak elkarrekin taldeko argazkia aterako dute. 18:00etan, berriz, Doneztebeko VII. San Silvestre-a. 18:00etan gazteenak aterako dira eta zirkuitoari buelta bat emanen diote. Ondoren helduek 4 km laister egingen dute. Garaileentzat sariak eta parte hartzen duten guztiei opari bat emanen zaie eta denen artean zozketak egingen dira

DISEINUA HARITZEAN - RUSTIKOA

TELLERÍA

Kalitatezko altzarien 700 m²ko erakustokia prezio interesgarriekin

- Neurria eginak
- %100 Haritz Trinkoa
- Enpotratuak
- Sukaldeak
- Txokoak

KOLORE ETA AKABERA AUKERA HAUNDIA

BERRIOPLANO (Informatik) - Tel. 948 30 35 04 - multitelleria@gmail.com - www.multitelleria.com

leapalndegia

maria T. 948 450 922

HAURRAREN EGUNA:
asteazken arratsaldean
prezio bereziak

EGUBERRIETAKO OPARIAK
hemen ere!!

Wi-Fi zerbitzua

EZ DUZU ARGALTZEA LORTZEN?

Gainpisua desberdina da pertsona guztietan eta argaltzeko zurea nolakoa den definitu behar da. Horretarako azterketa berezi bat egiten



dugu. Horrela bakarrik jakingo duzu zergatik ez zaren argaltzen eta zer egin behar duzun behin betirako lortzeko. Interesagarria ezta?

**ORAINGOAN
LORTUKO
DUZU!!!**

ESKAINTZA BEREZIA!

(abendutik otsailara)

BIM azterketa + Nutrizio plana + 6 LLA laser saio

Lehen 600€
Orain **400€**

Hasierako kontsulta doan

ESTETIKA • ILE-APAINDEGIA • LURRINDEGIA

EGUBERRIETAKO OPARIAK



Bitxi,
arropa
eta
osagarrietan
**BILDUMA
BERRIA!**



Ameztiá DONEZTEBE 948 450 163 centroimagenamaya@hotmail.com

ELGORRIAGA

OSPAKIZUNA → AZAROAREN 24AN

Zorroiloak elkarteko besta giro ederrean joan da aurten ere

Txetel tiraketan Joxelu Arozena eta Pili Goienetxe izan ziren txapeldun

Mattin LARRALDE

Azaroaren 24an ospatu zen Zorroiloak Elkartearen besta. Jendeak gustura pasatu zuen egun horretarako antolatutako ziren ekitaldietan. Txetel tiraketan, mutiletan, Joxelu Arozenak irabazi zuen eta bigarren Joxepo Martiarena izan zen. Neskatan, berriz, Pili Goienetxe geratu zen txapeldun eta bigarren Fermina Goienetxe bere ahizpa. Ondoren, bazkaria izan zen eta jendeak kantatuz akautu zuen. Bingo txiki bat ere egin zuten bertan zeudenen artean.

Liztor asiaticoari buruzko solasaldia

Abenduaren 15ean solasaldi bat antolatu da

liztor asiaticoari buruz (*vespa vetulina*). Bertara hurbiltzen direnen artean ikuspuntu eta informazioa banatuko da. Nahi duen guzia joan daiteke, herriko etxeko saloian izanen da larunbat eguerdian eta nahi duenak herriko ostatuan ere bazkal dezake.

Gabon aurreko prestakuntzak

Abenduan ekintza asko izaten dira. Gabon aurreko prestakuntzak hilaren 8ko opil egunarekin hasten dira, ondoren abenduaren 16an, 11:30ean zuhaitz apaizteza egingen da urtero bezala (bolatxoak, zintak, panpinak eta argiak jarri). Ondotik, 24an, olentzero herrira etorriko da, urtero bezala goxokiak haurri ematera eta etxeetara opariak uztera. Berekin herrian buelta eman eta etxetik etxera haurren argazkiekin egindako egutegia zabalduko dute.



ARGAZKIAK: MATTIN LARRALDE

Txetel tiraketan Pili Goienetxe eta Joxelu Arozena izan ziren txapeldun. Beheitiko argazkian, joan den urteko olentzero.

Abenduaren 26an kontakontuak izango dira elkarteko goiko gelan. Beste egun batea, hau

idazterakoan oraindik zehazteko zegoen ateralditxo bat egingen dute.

URROZ

AZPIEGITURAK

Sasoik egingen du goiko ur hornidura berritzeko lana

Joseba URROTZ

Duela urte pare bat edo hasia zen goiko ur hornidura egiten duen azpiegitura berritzeko prozedura, eta azkenik badirudi pausuak ematen ari direla. Lanen esleipena egin da, lau enpresa sartu ziren lehiaketan eta azkenik Sasoi Eraikuntzak-ek lortu du puntuaziorik haundiena. Urte bateko epea du lana burutzeko.

Su egur loteak

Ematen du gero eta herri gehiagok erabakitzen dutela modu honetan egitea su egur lotea atera eta banatzeko lana, eta gurean ere egin da proposamena. Alegia, famili bakoitzak bere gain hartu beharrean lana, enpresa bati ematea egurra atera eta etxe atarira ekartzeko lana. Batzarra deitu zen afera hontaz erabakia hartzeko, eta azaldu ziren ia lagun guztiak, bertzeen esku uztearen alde agertu ziren. Hori bai, guttienerako eskaria izatea eskatzen du etorriko den mendi lanetako enpresak.

Proiektu honek badu etorkizuna

Elkarlanean gai gara eusteko.

Ekarpen asko jasotzen ari gara, baina zurea ere behar dugu.

Oraindik badugu zeregina BERRIA komunitatea indartzen.

BERRIA proiektuaren geroa ziurtatzeko

www.berria.info/berrialaguna

izan zaitez **berria**laguna

ZUBIETA-ITUREN

UDALA → ZERGAK ETA KONTRIBUZIOAK MANTENDUKO DIRA

238.000 euroko aurrekontua izanen du Zubietako Udalak heldu den urtean

Maistraren etxea moldatu eta alokairuan jarri nahi da

Fermin ETXEKOLONEA

2013ko udal aurrekontua onartu du Zubietako Udalak eta osotara 237.820,32 euroko diru sarrera irteerak izanen ditu.

Krisi egoera kontuan hartuta, joan den urteko zergak eta kontribuzioak mantenduko dira, igoerarik gabe. Inbertsioetan ere ez da espantu handirik izanen, baina maistraren etxea moldatzeko diru-zati bat izanen da. Lehenago alokairuan edukitzen zen etxe hau. Urte pare bat ditu itxirik eta irteera eman nahi zaio, auzolanean moldatuz eta berriz ere alokatzeko moduan jarritz.

Hondakinen afera

Hondakin organikoa-
rendako konpostadora
paratzeko tokia pen-
tsatzen hasia da Zubie-
tako udala. Sekretarioa-
ren etxearen atzeko al-
dean dagoen baratze-
an pentsatua dute.

Murritzketen kontra

Kalitatezko hezkun-
tza publikoaren alde:
murritzketarik ez lelope-
an Iturengo eskola ata-
rian kontzentrazioa egin
zuten abenduaren 4an.
Bertan bildu ziren esko-
lako guraso, ikasle eta
irakasleak, Marijose Be-
reau Iturengo alkatea
eta Zubietako udaleko
zinegotziak ere.



UTZITAKO ARGAZKIA

Murritzketen kontrako kontzentrazioa egin zen Iturenen.

Jarraitu lezaguru. Badabil.

NAFARROAKO RURAL KUTXA

KontakturikGABEko txartela

Biiip... bezeroendako bakarrik

Erosketak txartelarekin ordaintzen orain sekula baino azkar, eroso eta errazagoa da. Eta beti bezain seguru.

Nahikoa da kontakturikGABEko txartel berria datafonora hurbiltzean, biiip... bai entzun, eta kitto!

Interesaturik bazare, esorri guri bulegoetara eta eskatu zure Nafarroako Rural Kutxaren kontakturikGABEko txartela.

www.sintcontacto.kutxaerria.com | [Twitter](#) | [Facebook](#)

*20€ baino gutxiagoko ordainketaren ez da beharrezkoa PINa sartzea

Bilatu ikur hau kontakturikGABEko ordainbidea duten dendak aurkitzeko

BERTIZARANA



OSPAKIZUNAK → HERRI BAZKARIA ETA HAURRENDAKO TAILERRAK IZAN ZIREN

Giro ederrean joan zen San Andres Eguna

Martin BERTIZ

Krisi garaiak direla, aurreztu beharra dagoela horrelakoak entzuten ditugu egunero, orduro eta minutuero. Baina honek berdin du, jendeak ongi pasatzeko gogoz segitzen du eta aurreten ederki erakutsi du Narteko herriak entzuten direnak entzunda umoretsu segitzen duela. Azaroaren 30a zen San Andres eguna, eta ohoretzeko 11:00etan meza izan zen, ondoren nahi zuen guziarendako luntxa ostatuan. Eguerdian herriko alkateak eta zinegotziek ostatuan bazkaldu zuten eta arratsaldeko 5ean txokolatada egin zen.

HERRI BAZKARIA

Biharamunean, larunbatean, herri bazkaria egin zen eta 70 bat lagun bildu ziren. Segidan, Agerralderen musikarekin goatzeko aukera izan zen.

Esan beharra da Bertizaranako Udalak arratsaldean haurrendako tailerrak antolatu zituela eta bai gustora egon zirela gaztetxoek jolasean.



ARGAZKIAK: MARTIN BERTIZ

Zakarrontziak moldatu dituzte Oieregin

Duela hilabete batzuk Txino ondoan dauden zakarrontziak moldatu zituzten eta oraingoa Erreparatzeko jauregi parean daudenei tokatu zaie. Berrikuntza lan hauek Mankomunitatearen eta Bertizaranako udaletxearen elkar lanaren ondorio izan dira. Irudian ikus daitekeen bezala ederki antolatuta gelditu dira zakarrontziak.

EZKURRA

Ezkain mendi sakratua?

Fernando ETXEBERRIA

Duela hilabete batzuk, Otsola inguruan ibilaldia egin ondoren, Basaburuako taberna batean sartu nintzen. Barruan bi jubilatutako ari ziren solasean. Elkar agurtu ondoren, gizartearen eman diren aldaketan inguruan hitz egiten hasi ginen. Teknologia berriekin komunikazio gaitasuna hedatzen ari bada ere, pertsonen arteko komunikazioa, inkomunikazio bilakatu dela izan genuen hizpide. Garai batean, asteburuetan jendea tabernetan elkartzen zen afaldu, musean jokatu edo herrian eta inguruan gertatu zenaren berri izateko. Gaur egun ohikoena, zerbait hartu eta berehala tabernatik joatea izaten da. Ezkurran garai bateko usadioak bizirik jarraitzen du oraindik. Hogeita lagunekoa taldea, gehienak jubilatutako, Barranka ostatuan elkartzen dira larunbatetan eta zenbait igandetan goizeko 11:00ak aldera, gosaldia eta elkarrekin berriketan aritzeko.

Bilera horietako batean, Ezkurran bisitarien etorrera sustatzeko beharraz hitz egin zuten. Herri guztietan egon ohi da, herriko historia aztertzea gustuko duen bat. Ezkurran ere bada, eta Barandiaran, Garmendia, Etxeberria eta Aranzadi Elkarrekoen ikerketetan oinarrituta Ezkurra historiaurrean izan zuen garrantzia azpimarratu zuen herritar honek. 25 monumentu megalitiko baino gehiago daude Ezkain, Olegi eta Iruñarri inguruetan. Horrek, historiaurrean, tribu ugari bertatik igaro zirenen ideia indartzen du. Ezkain izenak berak ere, Eskaintza adierazi nahiko luke, hildakoei egindako eskaintza, izan ere, asko dira, Ezkain inguruan hildakoei zerkusua duten monumentu megalitikoak.

Nabarmena da historiaurreko aztarnak ugariak direla gure inguruan. Eratsungo lursailetan dagoen Iruñarriko menhirra azpimarratuko genuke. Deigarria da, daukan inklinazioa. Gainera bi norabide seinalatzen ari dela dirudi: mendebaldea eta ekialdea. Bertatik igaroko zirenak nora jo jakin zezaten jarritako seinaleak izanzen ziren?





OGI BERRI
ARTEZANAKO PANADERIA

GURE GOZOTEGIA
Parrokia, 19 | DONEZTEBE
948 450 819

SANDWICH-ak:

- Bikini (York urdaizapikoa, gazta eta moldeko ogia)
- Rustikoa (York urdaizapikoa edo bodega urdaizapikoa, gazta eta hogaza ogia)
- Begetala (Osagai desberdinekin. Moldeko ogiarekin edo hogaza ogiarekin)

Ogi freskoa egunero eta egun guzian

Golez: 8:00-14:30

Arratsalde: 16:00-21:00

23 ogi mota ezberdin

Gozotegia: tarta eta pastelak aukeran

ENKARGUAK HARTZEN DIRA ZELIAKOENTZAT PRODUKTUAK

Eguberri eta Urte berri on!



Eguberriak 2012

Jostailuak edo arropak direla, kosmetika produktuak zein osagarriak, aunitzetan opariekin asmatzea zaila izaten da, eta buruhauste bat baino gehiago sortzen digu opari aproposa aurkitzeak. Gehigarri honetan proposamen komertzialak, aholkuak eta, han eta hemen, gure herrietan antolatu diren jardueren buruzko informazioak topatuko dituzu. Baliagarri izanen zaizkizulakoan,
Eguberri On!

Merkataritza bizirik dagoen tokietan,
herriak ere bizi-bizirik daude

Erosi gure dendetan!
Atera zukua gure zerbitzuei



INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK
+34 943 637 377
clientes@cafeurun.com

VIPcar
608 037 852

Nemux

zuorana.musik

URTE ZAHARREKO MENUA & KOTILIOIA

Foie gras mi-cuit Modenako gonokiarekin
Bieira eta txangurrua hostorean saltsa amerikarrarekin
Ostarrainakak plantxan
Pasaia legatza zigala-emultsioarekin
Aspisuna plantxan Porto saltsarekin
Trufa-tarta Baileys moussarekin
Orsiol Rosell brut nature cava kopa
Kafeak, infusioak eta likore txupitoak

60 €
(BEZ BARNE)
Biderak barne

SUKALDEBERRIAK SORTUTAKO MENUA
AITOR ETXEBERRIA

KOTILIOI BESTA

BI GIRO

JANTOKI AGERTOKIAN
THE JOB
MUTUO KONZERTU JAZZAKIN

DISCO & LOUNGE
GEORGES & NEMUX
MUSICA & SEXY DANCING

SARRERA

20 € AUDRETIK 25 € LEHATILAN

URTE BERRI ON!



EGUBERRIETAKO PRODUKTUAK
Saskiak • Hotz bero produktuak
Kandelak • Mineral bitxiak • Sonajeroak



Turriak, polboroiak, txanpina
ardo ekologikoak...

Dieta pertsonalizatuak • Apiterapia
Naturopatia • Masajeak

ZORIONAK ETA EGUBERRI ONI
Leitzako errep. 3 behea | DONEZTEBE
Tel. 948 451 473 | kimetzbelardenda@hotmail.com

948 631 218
Kanttonberri 1. BERA

KATEA-BIKE



**BIZIKLETA SALMENTA
ETA KONPONKETA**
Zorionak eta urte berri on!

www.kattagorria.com
Behoko plaza, 10
LESACA
948 627 514





**Baserritar jantzi
KOLEKZIO BERRIA
ESKAINZA HANDIA**

EGUBERRIETAKO AGENDA

Olentzero, kontzertu eta bertze hainbat ekitaldi herriz herri

Eguberrietako ohiko ospakizunak Olentzero eta Errege Kabalgata izan ohi dira, Urtezhahar eguneko Diostesalbe eta gisako kantaldiekin batera. Horietaz gain hainbat kultur eta kirol ekitaldi antolatu dira herriz herri.

Eguberriak gainean ditugu eta herri gehienetan Olentzero aterako da karrikaz karrika, etxeetan opariak utzi baino lehen. Bukatzeko, Errege Kabalgatak ere izanen dira herrietan, baina tartean, bertze ekitaldi ugari antolatu dituzte kultur elkarte, musika talde, ikastetxe edo Udalek. Honatx horietako batzuk:

Olentzero, Glin-Glan eta Diostesalbea Beran

Beran kultur agenda emankorra izanen da egunotan. Hasteko, abenduaren 14an, ortziralean 18:00etan Bortzirietako haur eta gazteen ipuin lehiaketako sari banaketa egingen da liburutegian. Abenduaren 19an, asteazkenean, eguberrietako kontzertua izanen da 17:30ean Kultur Etxean. Abenduaren 21ean *'Entre dos mundos. Bihotz baten bidaia'* antzezlan eskainiko dute Uxanekoek 20:00etan Kultur Etxean. Abenduaren 24an, jakina, Olentzero ailegatuko da 17:00etan Herriko Etxeko Plazan eta euria egingen balu, Eztegar pilotalekura. Urtezhahar egunean, berriz, Glin-Glan eta Diostesalbe kantari ibiliko dira karrikaz karrika.

Olentzero lehiaketa Lesakan

Olentzero ikusgarriak eta bikainak egiten dituzte herriko ume eta gazteek eta hura bizkarrean hartu eta kantari ateratzen dira plazara eguerditik aitzinera. Epaimahaiak, olentzeroa bera, abestia eta kantarien janzkera baloratzen du. Olentzero politenari ere Esparza Saria ematen zaio. Maila nagusiko irabazleek (adinaren arabera egiten baita lehiaketa), arrats partean musika bandarekin herrian barna desfilatzen aukera ere irabazten dute. Kontuan hartzekoa da, gainera, aurtan Olentzeroaren Txondorra ere egin dutela lehen aldiz Lesakan eta horrek aparteko ikusmina sortu duela egun hauetan. Gainerakoan, Lesakako Abesbatzak eta Musika Eskolak urtero antolatu ohi dituzte hainbat kontzertu eta aurtan ere egingen dituzte. Zoritarrez, hau idazterakoan ez zeuden zehaztuak egunak eta orduak.





Bortzirietako Gizarte Zerbitzuak koordinatuta, Haur Txokoa egitasmoaren edizio berri bat prestatu dute eguberri hauetarako.

Donezteben kirola, kontzertuak, ipuin kontalariak...

Urtero bezala, Erreka Elkartek hainbat jarduera prestatu ditu. Abenduaren 15ean Erreka-Burlada partida; abenduaren 22an Mendiaren Eguna ospatzeko ateraldia eginen dute Bonozorrotera (Leurtza), eguerdian bazkaria Kasinon eta ilunabarrean Alex Txikonek proiektzioa eskainiko du zineman. Abenduaren 24an Saioara ateraldia eta 31n Mendaurrea. Urte zahar egunean ere, Doneztebeko VII. San Silvestrea 18:00etan. Bukatzeko, abenduaren 22an 13:00etan Errekaren Saskia zozketatuko dute.

Kontzertuei dagokionez, abenduaren 14an 20:00etan Doneztebeko elizan Mendi Abesbatzak, Donostiako Udal Txistulariek eta Agorreta Musika Eskolakoek eguberrietako kontzertua emanen dute. Haur eta gaztetxoentzat bereziki, *Karabi Karaba* kontu kontalaria ariko da abenduaren 26an 17:00etan zineman, eta hiharamonean, abenduaren 27an, zine emanaldiak 16:30 eta 18:30ean.

Baztanen kontzertuak, ikastaroak, azoka...

Juanito Erasori omenaldia (10. urtemuga) dela eta, argazki erakusketa zabalduko dute abenduaren 14an, 19:00etan. Gero, 20:00etan mahaingurua izanen da Kasinon 'Ahots musika eta ahotsa'. Larunbatean, abenduaren 15ean, hasiko da kontzertuen programazioa Musika Eskolak Irurietako elizan 17:00etan eskainiko duenarekin. Larunbat horretan berean, Elizondoko elizan 20:00etan Iruñeko Orfeoia eta Elizondoko Abesbatza ariko dira, 18an (asteartea) Zahar Etxean eguberrietako kontzertua eskainiko du Musika Eskolak eta kontzertuen programa akitzeko, 29an Elizondoko Elizan 'Opera ariak eta duoak' eskainiko dituzke 20:00etan eta igandean, abenduak 30, Lekarozko Elizan 11:30ean Elizondoko Banda Recreo.

Bertzalde, Erratzuko Kultur Elkartek hainbat ikastaro antolatu ditu hilabete zehar: kantu zaharrak, euskal dantzak, fanfarre musika eta sukaldaritza. Anizen ere, astelehenean 18:30ean, euskal dantzen ikastaroa emanen dute. Zinema euskaraz izenburupean, azkenik, *Ice age 3* Etnografia Museoa abenduaren 27an 17:00etan.

Leitzan kontu kontalaria eta txokolatada gaztetxoentzat

Gaztetxoentzat dibertimendurako kontu kontalaria etorriko da abenduaren 29an Eskolako Jantokira arratsaldeko 5etan. Ondotik, txokolatada izanen dute.



DONEZTEBE - 948 450 284

ARRATE ESTATIKA ZENTROA

GERMAINE de CAPIUCCINI

Timexpert Rides 42.90€ Timexpert C+ 41.40€

OPARI Begi-itzala Makillaje kantzekoa

OPARI Pure C essence krema

MONTIBELLO VITA C PURA 42.90€

SKEYNDOR Eternal krema eta Serum 199.10€ 79€

NATURAL DEFENSE Eguzki begi-itzala eta gogoratu krema 59.40€ 50€

NOIR EAU PERFLUM **OPARI** Tzemaia, after shave, eta garbitzekia 58€

ETORRI ESKAINTZA BEREZIEKIN ZERRENDAREN BILA

ainhoa
estilista

ORDUTEGIA
Asteartetik ostiralera:
09:30-13:30 | 16:00-19:00
Larunbatetan : 09:00-14:00
Astelehenetan itxia
948 638 170

Eguberri ou!

ORAIN: Albistur, 63B-an LESAKAN

Pinpirin
PELUQUERIA - ILEAPAINDEGIA

Aitziber
Ubiria Santesteban

EGUBERRI ON!!

Plaza zaharra 26
31770 LESAKA
Tfnoa: 948 63 80 37

EGUBERRIETAKO MAKILLAJEA

Makillaje bizia eta erakargarria

Makillatzeko orduan ez dago arau finkorik, baina 50eko hamarkadako joerak nagusitu eta ezaugarri femeninoenak eta kolore biziak nabarmenduko dira. Denboraldi bakoitzean, kolore aukerak eta joerak aldatu egiten dira makillaje arloan. Izan ere, ez da gauza bera udaren makillatu edo neguan. Udan kolore alai eta argiko jantziak jantzen ditugu eta gorputza belztuta daukagu. Udazken eta udaberrian, berriz, jantzi ilunak dira nagusi.



Urte Zahar gaueko ospakizunak aitzaki egokia dira makillaje eta orrazkera bereziak egiteko.

Aurtengo denboraldian 50eko hamarkadako joerak nagusituko dira, eta, ondorioz, ezaugarri femeninoenak eta kolore biziak nabarmentzea garrantzitsua izanen da. Onena makillaje oinarri on bat aukeratzea izanen da. Alde horretatik, hainbat aukera eskaintzen dute adituek. Aurtun ez dago arau finkorik; dena gure momentu eta animoaren baitan izanen da. Makillaje gutxi edo *nude* delako eskaintzatik makillaje sofistikatura zabaltzen da aukera. Hala, ukitu natural eta eragin biribila ematen duen *nude* joera indartsu dator. Hau da, aurpegi garbiaren itxura lortu nahi da. Oinarria emateko modurik hoberena zurdakia edo kotoia erabiltzea da. Mugimendu biribilak egitea da egokiena, eta ahalik eta gehien zabaltzea.

Hurrengo pausoa begien itzala kontuan izatea izanen da. Itzalek zeregin garrantzitsua dute aurtun, betazalean batez ere. Malba eta more koloreak nagusituko dira. Begi-etako arkatza ukitu metalikoak dituzten koloreak emateko erabiliko da. Begitik ihes egiten duen forma emanen zaio eta itzalak leunki lausotuko dira.

Begirada indartsua lortzeko, betile maskadarada bat ematea komeni da. Horrela bolu-mena handiagoa emanen zaio. Betile luzeak boladan daude eta ordezeko betileen itxura izanen dute.

Ezpainei dagokienez, laranja, brontze, aran, alberjina eta more sail guztiak eramanen dira. Koloreen gainean distira edo *gloss* delakoa jar dezakezu, eta horrela ezpain gustagarriagoak lortuko dituzu.

Azkenik, azazkalei arreta berezia jarri behar zaie. Kolorea arras garrantzitsua izanen da eta urdin, beltz eta gorri sailak nabarmenduko dira.

non jantzi zure barnealdea

BIDEAN



IRUÑEA
COMEDIAS 8-10
948 177 473

Iruñeko **BIDEAN** dendan
eguberritako erosketak

KRISI GARAIAK EROSTEN LAGUNTZEN DIZUGU!!

NESKA



Polartec
TERNUA
~~154,90€~~
99,90€



Haize-babeslea
TERNUA
~~139,90€~~
99,00€



Outdoor
galtza
TERNUA
~~89,90€~~
69,90€



MUTILA



Polartec
TERNUA
~~149,90€~~
109,90€



Haize-babeslea
TERNUA
~~139,90€~~
83,90€



Outdoor
galtza
TERNUA
~~89,90€~~
69,90€





BESTA
16 Rue du port | 64700 Hendaye | +33 (0)559 48 37 58

Gabonetako
apaingoniak
JANTZIAK
PETARDOAK, SUZIRIAK

BESTARAKO GUZTIA!



Jalo berrientzako behar duzun guztia

Josta Mendi Txikiak

Bezero txartelarekin sekulako abantailak
Eskaintza bereziak

GIPUZKOAKO 500m² erakusketarik
zabalena duen puerikultura denda
Easo, 51 - Donostia - T. 943 470 244

Artaleku, 3 - IRUN - T. 943 638 223
www.maxibebé.org

maxibebé



Kotoi

Kortinak
Estoreak
Etxerako
ehungintza
osagarriak

Bidasoa kamika 14 - 31780 BERA
T./F. 948 631 660



TABERNA ZAHARRA

Gizon eta emakumeendako
arropa-denda
Gortinak eta
etxerako arropak

ZATUZ
GABONETAKO
OPARIA
EROSTERA!

Merkatarien karrika, 11 - DONEZTEBE
T. 948 450 007

MERKATARIAK ERE EGUBERRIEI BEGIRA

Herrian bertan kontsumitzera animatu nahi dute

Jendearen sakelak ez daude alaitasun gehiegirako baina, hala ere, merkatarien elkar-teen inguruan antolatutak dauden dendariak prest dituzte hainbat estrategia herrietako giro komertziala alaitzeko eta, bidenabar, herritarrak herrian bertan kontsumitzera animatzeko.

Baztanen erakusleihu lehiaketa eta Fideltasun Txartela

Bertan Merkataria, Ostalaritza eta Zerbitzu elkartean Fideltasun kanpaina egiten ari dira aurten ere eta ilbeltzaren 7an fideltasun kanpaina horretako zozketa egingen da Arizkunenean. Bezeroek, 12 lauki dituen txartela zigilatu beharko dute eta komertzio bakoitzak gehienez ere bi zigilu jartzen ahal ditu, erosketen kopuruaren arabera (erosketa 20 euro baino guttiagokoa bada zigilu bakarra eta gehiagokoa bada, bi zigilu). Behin txartelaren 12 laukitxoak zigilatuta daudela, zozketan sartuko da eta oparietako bat lortzeko aukera izanen du txartel bakoitzak. Opariak ikusgai daude dagoeneko garai bateko Fantxike dendan, botikaren parean. Horretaz gain, azken urteetako ohi-turari eutsiz, erakusleihu edo eskaparate lehiaketa ere egingen da (saria 2 afari) eta Baztango etxe guztietara 2013ko egutegi dotorea banatuko dute egunotan.

Lesakan tonbola egin dute aurten lehen aldiz

Lesakako merkataria eta Zerbitzuen Elkartean tonbola egin dute aurten lehen aldiz, abenduaren 8an. Hori baino lehen, bazkide diren dendetan euren bezeroei boletoko banatzen zizkieten eta abenduaren 8an arratsaldeko 7etatik aitzinera, 40 bat opariren zozketa egin zen Plaza Zaharrean. Animazioa eta giroa laguntzeko, pintxoak, sagardoa eta ardoa banatu zen. Eta bezeroen fideltasuna saritzeko, egunotan loteriako partizipazioak ere (10 zentimokoak) banatu dituzte erosleen artean.

Pintxo lehiaketa eta dekorazio lehiaketa Beran

Berako Larun Haizpe elkartek bi lehiaketa antolatu ditu eguberri hauetarako. Hala, Pintxo Lehiaketaren lehendabiziko edizioa egingen dute abenduaren 16an (igandea) eta parte hartzen duen ostatu bakoitzak 3 pintxo presentatuko ditu lehiaketara. Bezeroek pintxorik onena bozkatzeko boletoko izanen ditu. Saria: bi afari bina laguntzat bakoitza.

Dekorazio lehiaketak bi atal izanen ditu. Batetik herriko fatxada eta balkoirik politenak baloratuko dira eta saria bi erosketa txartel, herriko dendetan erosketak egiteko. Eta bigarrenik, denda eta lokalen erakusleihorik politena sarituko da eta saria 2 bazkari. Irabazleak urte bukaeran erabakiko dira.



Bezeroen fidelitasuna eskertzeko era guztietako sariketak antolatu dituzte merkatarien elkar-
teek. Baztango Bertan elkarteak etxe guztietara banatu ohi du urtero 28 orrialdeko egutegi
eder bat. Argazkian egunotan banatuko duen egutegiaren azala.


Tonbola eta erakusleihu lehiaketa Donezteben

Doneztebarrak Elkar-teak tonbola prestatu du aurten ere. Abenduan egindako eros-
keten bidez tonbolako txartelak eskuratzen dituzte bezeroek eta abenduaren 30ean
eginen da zozketa (17:30). Ondotik haurrendako jokoak eta txistorrada izanen da triki-
tilariekin alaitua Santa Luzia Plazan.

Eta tonbolaz gain, iaz bezala erakusleihu lehiaketa ere eginen dute aurten. Bi sari
daude: elkar-te desberdinetako ordezkari osatutako epai-mahaiak ebaztiko du sari-
etako bat eta bigarren saria publikoak erabakiko du. Hortarako, botoa emateko bu-
zoia paratuko dute eliz atarian. Partehartzaileen artean saski bat zozketatuko da aben-
duaren 29an, tonbolaren egunean.

Erosketa txartelak zozketatuko dituzte Leitzan

Bezeroen fidelitasuna saritu nahi du Leitzako Kaxkabeltza Elkar-teak. Hartara, aben-
duaren 1ean hasi eta urtarilaren 4a bitarte Leitzako dendetan erosten duenak badu
aukera 3 sarietako bat eskuratzeko: 500, 400 eta 300 euroko erosketak egiteko txarte-
lak, alegia. Zozketa, Errege bezperan, urtarilaren 5ean eginen da.



IBARDIN - BERA

Biok

Eguberrietako eskaintzak!!!

COCO NOIR CHANEL EDP VAPOR 100ML	DIESEL EDP VAPOR 100ML
LEHEN 119,70€	LEHEN 61,00€
PROMOZIOA 95,90€	PROMOZIOA 55,90€
LA VIE EST BELLE LANCOME EDP VAPOR 100ML	AMANI code EDP VAPOR 100ML
LEHEN 75,00€	LEHEN 68,00€
PROMOZIOA 67,90€	PROMOZIOA 59,90€
MANFRED EDP VAPOR 100ML	EAU SAUVAGE PRADA PARFUM VAPOR 100ML
LEHEN 79,20€	LEHEN 79,65€
PROMOZIOA 70,90€	PROMOZIOA 60,90€
NUIT BOSS EDP VAPOR 100ML	ESSENCE OF CARTIER EDP VAPOR 100ML
LEHEN 79,60€	LEHEN 66,00€
PROMOZIOA 60,90€	PROMOZIOA 56,90€
caquel EDP VAPOR 100ML	PRADA EDP VAPOR 100ML
LEHEN 56,00€	LEHEN 64,65€
PROMOZIOA 50,90€	PROMOZIOA 55,90€

Perfumerias Idia
Benta Legizari
Benta Beka
Benta Beka

Abenduaren 31ra arte
www.perfumeriasidia.com
Eskaintza hau zuzenean da irabazteko moduko.





ARKUPE
Gozotegia • Txokolategia

Elizondo - Tel. 948 452 393
Iruñea
Tel. 948 452 021 - 948 580 059
info@arkupegozotegia.com
www.arkupegozotegia.com



esarte

Santiago 83 B bajo I Elizondo
T 948 581 907
www.precocinadosesarte.com



TXALUPA, S.I.
ARRANDEGIA

Arrain eta
marisko freskoa
aste osoan
Enkarguak
hartzen ditugu

Zorionak
eta Urteberri on!

Kanttonberri, 3 beheak • BERA
T. 670 321 202 - 948 631 575

ARRISKUAK SAIHESTEKO AHOLKUAK

Eguberriak seguru gozatzeko

Kalitatezko produktu freskoak erostea eta behar bezala izoztea izaten da elikadura arloko toxi-infekzioak saihesteko modurik egokiena

Ospakizun-egunak izaten dira Eguberriak, jan, edan, abestu, topa egin eta gozatu. Eta hori guztia egin ondotik, gogor samarra izan daiteke biharamuna: batzuetan, ez dago tarte handirik familia-giro alaitik komuneko edo ohatzeko bakardadera. Eta urdaila gurgurka ari zaigula, otarrainxkekin oroituko gara... Deskuidutxo bat aski baita zenbait jaki hondatzeko; adibidez, otarrainxkak behar baino denbora gehiagoan hozkailutik kanpo edukitzea. Eguberrietan, eskabide handia izaten dute zenbait produktuk, eta jendeak dezente lehenago erosteko ohitura izaten du, batere gabe gelditzeko beldurrez. Produktu horietako batzuek osasun-arrisku handia izaten dute, eta kalitate onekoak ez badira edo behar bezala kontserbatzen ez baditugu, eta prestatzerakoan ere kontu edukitzen ez badugu, toxi-infekzioak sor daitezke.



Nola hautatu eta kontserbatu produktuak

Arrain eta itsaskiak

- Arraina erraz hondatzen da; erosi eta azkar samar jatekoa da, eta hotzetan eduki behar da beti. Sekula ez du ukitu behar hosto berdeko barazki edo berdurarik (letxuga edo perrexila, adibidez).
- Arrain freskoak itsatsita edukitzen ditu ezkatak, zakatzak gorri eta geruzatxoak bereizita, eta begiak distiratsu, ez hondoratuta. Usaina ere freskoa izaten du, itsasoarena.
- Itsaskia da elikagairik galkorrenetakoa, eta, beraz, ahalik eta freskoena erosi behar da. Berehala jatekoa ez bada, hobe da egosita edo izoztuta erostea.
- Ez da erosi behar itsaskirik susmagarri izan litezkeen saltokietan edo iruzur egin dezaketenetan.
- Molusku freskoek etiketa batean adierazi behar dute garbitu egin dituztela salgai jarri aurretik. Maskor bikoek itxita egon behar dute, eta sutan prestatu ondotik, ireki egin behar dute; irekitzen ez badira, hobe da botatzeta.
- Arrainak eta itsaskiak poltsa isotermikoetan garraiatu behar dira, hotz-katea ez dadin eten, eta etxera ailegatzean hozkailuan sartu behar dira berehala.
- Arraina edo zenbait itsaski (olagarroa, txibia...) gordinek jatekoak badira, izoztu egin behar dira 48 orduz, gutienez; bestela, gerta daiteke *anisakis* larba biziak jatea.



Haragiak eta haren eratorriak

- Haragiak hotzetan eduki behar dira, eta ongi berezita, jatorri eta sailaren arabera.
- Hegaztien haragiek berezita egon behar dute gainerakoetatik, kutsadura gurutzatuak saihesteko.
- Egoera onean den haragi batek gainazal leuna behar du, trinkoa eta elastikoa, eta hezetasun pixka bat eduki behar du. Ez du zertan eduki zati ilun edo nabarrik.
- Kontu handia izan behar da barrenkiekin eta haragi xehatuarekin (unean bertan xehatua izan behar du edo behar bezala ontziratua egon behar du).
- Urdaiazpikoak, batez ere iberiarrak, puntutxo zuri batzuk eduki ditzake moztean; ongi ondua dagoela erakusten du horrek, ez da kalitate txarraren adierazgarri. Urdaiazpiko zatia kanpoko tenperaturan eduki behar da, leku fresko eta lehorrean.
- Ehizakia elikagai arriskutsua izaten da eta, beraz, osasun-berme guztiak eskaintzen dituzten zatiak soilik jan behar dira, eta zorrotz bete higie-neurriak, kutsadura gurutzaturik ez izateko beste elikagaiekin. Sutan ongi prestatzea higienizatzetratamendu ona izanen da.

Kontserbak, erdi-kontserbak eta jaki ontziratuak

- Pateak, antxoak edo urdaiazpiko egosia, egiaz, erdi-kontserbak dira, eta hotzetan eduki behar dira, higienizatzetratamendu bakarra eman baitiete (pasteurizazioa/egostea), baina ez kontserbatzeko tratamendua.
- Hutsean ontziratuta dauden produktuak ere erdi-kontserbatzat har daitezke: kezatuak edo xerratan datozen hestebeteak, adibidez, hotzean eduki behar dira.
- Erosi baino lehen, begiratu egin behar da zer data baino lehen kontsumitzea komeni den edo noiz iraungitzen den; horrez gain, ontzia nola dagoen ere aztertu behar da (ez du egon behar mailatua, eta herdoil-arrastorik ere ez du eduki behar).
- Baztertu egin behar dira konkortuta edo sabelduta dauden ontziak eta irekitzean airea askatzen dutenak.

Frutak eta berdurak

- Frutek eta barazkiek ez dute behar izaten kontserbatze-baldintza berezirik saltokietan, baina hotzetan egon litezke.
- Ontzietan edo handizka jarriak egon daitezke, eta 'garbiak' egon behar dute, lurrik gabe edo jateko balio ez duten zatirik gabe.
- Saihestu egin behar dira zati hondatuak, kolpatuak edo arras umotuak.
- Ahal balitz, janen diren egunean bertan erosi behar lirateke, ahalik eta freskoen.

Postreak

- Kremaz edo esne-gainez egindako tartak osasun-arrisku handikotzat jotzen dira, eta hotzetan edukitzekoak dira. Etxean eginez gero, zorrotz zaindu higie-neurriak.
- Fruitu lehorrek ez dute hautsita egon behar, ez dute orbanik eduki behar, ez zulorik edo deformaziorik, eta berezko kolorea izan behar dute. Behin azala kenduta, fruituaren itxurak ez du izan behar ez gantzatsuegia, ez lehorregia. Ontzietan datozen fruitu lehorretan, arretaz zaindu behar da ontzia zulaturik ez egotea, eta hezetasun arriskurik txikiena sumatuz gero, baztertu egin behar da, toxinak sortzen dituzten lizunak eduki ditzake eta.
- Kontu izan behar da etxean egindako izozkiekin eta arrautza osagai gisa daukaten postre hotzekin (esne-arrautzak, flanak, biskuitak, izozkiak). Erraz hondatzen dira.

HARATEGIA - CARNICERIA
ETXEO ARATZEAK
ZAMAIL
GASADENA PROPIA

ARETXE SALMENTA ZATIKA
5 KILOKO LOTEA 46 €

• HARAGITXIKITUA 1 KG • XERRAK 1 KG
• GISATZEKO HARAGIA 1 KG • TXULETA 1 KG
• ATZEALDEKO ZANGARRA 1 KG

**HUTSEAN ENBASATZEN DUGU,
BEZEROAK NAHI DUEN BEZALA**

Santiago, 56B - behea - ELIZONDO - 948 452 486

**ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
JAURENA**

Julio Caro Baroja. 6 behea
31780 BERA
Nafarroa
Tel/Faxa: 948 631 217

EGUBERRI ON!!!

cenor
Etxetresnen denda

Malloerra

Santiago, 15 - Tel. 948 560 061 - ELIZONDO
www.malloerra.com



Eguberria da Benta Peion



OPARIAK EGITEKO IDEIAK BEHAR DITUZU ?

ZATOZ BENTA PEIORA

AZAROAREN 15 ETIK ABENDUAREN 30.ERA

-% 50*



-ERAINOKO

**DESKONTUAK
MODAN**

*Aukeratutako artikuluetan

AZAROAREN 15 ETIK ABENDUAREN 24 RA



ESKAINITZA BEREZIAK SUPERMERKATUAN

**Eguberri gozoenak
eskaintzen dizkizuegu**

ABENDUAREN 3 TIK 31 RA



Zure erosketa guzuriak tuberenak
Euskal Herriko bihotzean

DANCHARIA

IBARDIN

VALCARLOS

BEHOBIE

WWW.VENTA-PEIO.COM TEL. 902 210 800

ONDAREA → AUZOLANA DEITU DUTE

Ondare historikoa berreskuratzeke lehen hitzordua larunbat honetan Olazarren

Udalak eta Andoaingo Burdina Taldea elkarlanean ari dira egitasmo honetan

Juana Mari SAIZAR

Aresoko Udala eta Andoaingo Burdina Taldea elkarrekin harremanetan jarri dira herriko ondare historikoa berreskuratzeke, eta lan horiekin hasteko lehenengo zita larunbat honetan izango da, abenduaren 15ean Olazarko parajea garbituz; Olazaringurua, zubia...txukunduko dira. Hori dela eta Udalak auzolana deitu du Plaza Zaharre-

an goizeko 8:30etan. Parte hartuko dutenei aurrez izena ematea eskatzen zaie era horretan hauentzako aseguruia egin eta ondoren bazkari bat emateko.

Euskararen Egun arrakastatsua

Euskararen Eguna dela eta ekitaldi ugari egin ziren herrian abenduaren lehen asteburuan. Aspaldiko partez eguraldia lagun izan zen, nahiz eta abenduaren 1ean hotz izugarria egiten zuen, eta jendeak ederki erantzun zuen antolatutako ekitaldietan. Hala ere arrakastatsuenetakoa, alde batetik, Jakoba Rekondoren landare eta bara-



ARGAZKIAK: JUANA MARI SAIZAR

Euskararen Egunekeo ekitaldietako batzuk bildu ditugu irudietan.

tzei buruzko hitzaldia izan zen eta beste aldeetik azken urteetan alde batera utzita zegoen trikitixa txapelketa. Aurtengoan txapela Bidanira joan zen, bertako Nagore Zinkunegik eta Iñaki Agirretxek irabazi baitzuten saioa.

Bestalde aipatu, argazki lehiaketako txapelduna Eden Algero izan zela, beraz Zorionak! Egun ederrak pa-

sa genituen eta, horrela bada, ea orain arte bezala, urte osoko egu-

nek Euskararen Eguna izaten segitzen duten Areson!

LEITZA, GOIZUETA, ARANO, ARESO

5 hilabeterako euskara teknikaria

TTIPI-TTAPA

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko euskara zerbitzuan lanean ari den Dabid Anaut teknikariak bost hilabeteko baimena hartu du bestelako lan batean aritzeko. Bitartean, 2012ko abenduaren 1etik 2013ko apirilaren 30era, Ione Gorostarzu izanen da eskualdeko euskara teknikaria.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

OPARI PRAKTIKOAK! ZORIONAK!
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

LEITZA

KIROLA → AZAROAREN 25EAN AMAZABALEN

Inaxio Perurenak ezin izan zuen 300 kiloko harria bizkarreratu

Goizetik urduri zegoela adierazi zuen

JM BARRIOLA

Inaxio Perurenak, ezin izan zuen 300 kiloko harria bizkar gainen berdindu, oso hurbil ibili zen arren. Azaroaren 25ean egin zuen saioa, Amazabal pilota lekua jendez gainezka zegoela. Harriajaso eta 17 segundotan eduki zuen indarrez airean, baina ez zuen bizkar gainen berdintzea lortu. Beste behin ere saiatu zen jasotzen baina bi-

garrenean ere ez zuen lortu. Oso urduri zegoela adierazi zuen berak. Hurrengo saioan lortuko du agian, Leitzako mutil handiak 300 kiloko harria jasotzea lortu duten gizonen zerrendan sartzea.

Gizarte Zerbitzueta ikastaroa

Pertsona gaixo, ezin du, eta dependienteen zaintzetaren inguruko ikastaroa antolatu du Gizarte Zerbitzuak. Ikastaroa 12 ordukoa izan da, pasa den azaroan.



ARGAZKIA: DIARIO VASCO

Inaxio Perurena, saio bete-betean.



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Orantzaro Eguna hurbiltzen ari zaigu

Eguberriak direla eta Orantzaro eguna hurbiltzen ari zaigu. Urtero moduan, herritarren artean Leitzako orantzaroak jartzeko deialdia egiten du pesta batzordeak. Dakizuenek Orantzaro egunean panpina jartzen zen aro hori irudikatzen gizon moduan nahiz emakume itxuran; konparazio baterako ikazkinak, arrantzaleak, artzaiak, jostunak, sorginak, amona xahar eta horrelakoak jartzen zituzten etxeetan eta baserrietan. Eguerdian Erleta ikastetxeko haurrak Orantzaroekin kalejira egingen dute, Leitzako Orantzaro postalak banatuko dira eta ondoren, plazan inguruan beren gutunak bidaliko dituzte. 18:30ean hasita Orantzaroaz gain beste partsonai magikoak azalduko zaizkigu Orantzaro enborra plazan erretzera jentilak dantzatzen duten bitartean... Egun horretan etxean Orantzaroa jartzen dutenen artean saskia zozketatuko da. Zozketan parte hartzeko Orantzaroa jarri eta Karrapera deitu besterik ez da egin behar.

Ikastaroa Eva Martinez adituak eman du eta hamabost lagunek hartu dute parte. Arrakastua izan da ikastaroa eta teoria, praktika eta antzerkia erabili dituzte. Soineko eta buruko ezintasunak zer diren argitu eta nola lagundu behar zaien azaldu ditu. Adibidez eritasunak, esklerosia, buruko paralisia, parkinsona, minbizia, ikusmen eta en-

tzumen arazoak ditzutenei nola lagundu azaldu zaie. Garbiketarak nola egin, arriskutak, posturak, oheratzak, lehen sorospetak... nola egin ere azaldu dute.

Mus txapelketa

Abian dira aurtien ere Euskal Herriko mus txapelketako Leitzako kanporaketak. Azaroan hasi eta abendura bitarte-

an jokatu dira mus partida guztiak. Aurrenekoak azaroaren 30ean Gaztetxean eta abenduaren 3an Torrean izan ziren eta orain Peritzan abenduaren 15ean arratsaldeko 5etan eta Aurreran abenduaren 23an arratsaldeko 5etan jokatu dira. Finala Torrean izanen da abenduaren 30ean, arratsaldeko 5etan. Parte hartzen duten guztion artean bi botila ardo banatuko dira. Sariak berriz 1. Txapela eta axuria; 2. Lau txuleta; 3. Baserriko bi oilasko eta 4. bi gazta.

Atekabeltzeko egitaraua

Urtero moduan, Atekabeltz gaztetxean eguberriko oporretan ekin tzak antolatzeko asmoa dute: talo tailerrak, azoka... Beraz adi egon behar da eta nahi duenak parte hartu.



Ze!Goxo

Kanttonberri, 3 - behea · **BERA** | Landabekoa, 2 - behea · **LEITZA**
Zazpigurutze, 4 - behea · **DONEZTEBE** | Plaza Zaharra, 17 - behea · **LESAKA**
Santiago, 47 - behea · **ELIZONDO**



Zorionak
eta urteberri on!!!



GOIZUETA

GIZARTEA → AZAROAREN 24AN

Jendetza bildu zen urtetik urtera indartzen ari den Feria Egunean

500 lagun elkartu ziren herri bazkarian

TTIPI-TTAPA

Goizuetarrek eta bisitariak egutegian gorritz seinalatua izaten duten eguna da ferietakoa. Hala zirudien behintzat, herrian bildu zen jendetza ikusita. Goizean goizetik, feria giroa nagusitu zen. Irisarriko frontoian azienda feria hasi zen. Azken hiru urteetan bezalaxe, betizuak izan ziren protagonista nagusiak baina, beste animaliekin batera azienda feria polita jarri zuten. Ardiak, zaldiak, zerrikumeak eta hegazti ugari ere eraman zituzten.

Zer ikusi eta zer eresia ere izan zen artisau eta nekazaritza salmenta-postuetan: eskulanak, baratzetik bildu berrietako jakiak... baita berrikuntza pare bat ere. Iazko feria egunean ja-

rritako txondorretik lortutako ikatza salgai jarri zuten eta arrakasta handia izan zuen ekimenak. Bestetik, Pilar Untxalok argazki zaharren erakusketa antolatu zuen eta Goizuetako 1950., 60. eta 70. hamarkadetako argazkiak ikusteko aukera izan zen: festetako argazkiak, komuniokoak.... eta 30. hamarkadako argazki kamera bat ere jarri zuten postuan. Sargardoa egiten ere aritu ziren. Eguerdian, Joseba Otaegi eta Joxe Mari Olasagastiren arteko aizkora apustua izan zen ikusgai eta beteranoe-na izan zen azkarrena. Herri bazkarian giro ederrean bete zuten barrena frontoian elkartu ziren guztiak. Xabier Solano, Esne Beltzako kidea, egon zen giroa alaitzen. Eta gauean, Gugaz taldearen kontzertuarekin eman zieten amaiera aurtengo Goizuetako feriei.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Giro bikaina izan zen Feria egunean plazan eta Irisarriko frontoia inguruan.

Eguberrietako kontzertua

Larunbatean, abenduak 15, Umore Ona abesbatzak emango du Eguberrietako kontzertua

bertako gaztetxoekin batera 20:00etan elizan: Ave María, Nere herriko neskatxa maite, Nere etxea, Basoillarrak, Nere izango zen, Axuri bel-

tza, Ator ator, Adeste fideles, Birjina gaztettobatzegoen, A south African trilogy eta Freedom is in your hand kantuek eskainiko dituzte.

MUSIKA AKADEMIA
MIGEL ANGEL ARAGON

Trikitixa eta akordeoien salmenta eta alokairua
2. eskukoak ere

POTTOKI

ttipi txartela

%5eko
DESKONTUA
oparitzeko
artikulu bakiatan

POLITIKA → TALDE BERRIA

Geroa Bai-ren Herrigunea osatu da Baztanen

Herriko
gehiengo
instituzionala
gehiengo
sozialaren
aldarrikapenekin
bat ez
datorrela uste
dute

TTIPI-TTAPA

Geroa Bai koalizioak, «egungo nafar politikaren errealitateari egokitu eta tokian toki garatu nahi dituen helburuei jarraiki», bere herrigunea osatu berri du Baztanen. Batzar berriak, bere garaian Nafarroa Bain oinarri izandako printzipio politikoak eta izaera anitza, soziala eta humanista bere eginen dituela jakinarazi dute, izan ere, «herriguneaosatzen dute asko bertatik baitatoz eta beste berri zenbaitek helburu hauek zinez konpartitzen dituztelako».

Baztango Herrigunea honetan, talde anitza elkartu da; horien artean badira EAJko kideak, Zabalzenekoak eta erabat independente diren pertsonak. Denek bat egiten dute Geroa Bai koalizioaren senarekin eta proiektu politiko hau bailaran zabaltzeko ardura hartu dute, bertan lan eginez. Jakina, taldea erabat irekia dago, hortaz, interesa duen edozeinek herrigunean parte har dezake, Baztango Geroa Bairekin kontaktuan jarritz hona-

ko helbide elektroniko honetara idatzita: baztan@geroabai.com.

Baztango Geroa Bai (BGB) osatzen dutenen kezka nagusia eskualdeak hainbat alorretan bizi duen egoera larria da; «larria eta kezkagarria da oso bailaran ematen ari den langabeziaren handitzea gordina eta horrek hainbat arlotan du isla, familia asko eta askoren egoera sozioekonomikoa jasangaitza baita jada». Zentzu honetan, BGBk salatu du «egun gobernu taldeak duen gehiengo instituzionala eta hura lortzeko jasotako bozka kopurua bat ez datorrela inondik ere bailaran gehiengo sozialak egiten dituen aldarrikapenekin»; Baztango Geroa Bairen aburuz, ez dira ematen



UTZITAKO ARGAZKIAK

Murrizketen kontrako kontzentrazioekin segitzen dute eskoletan

Baztango eta Xaretako herrietako eskoletan murrizketen kontrako elkarretartzeekin segitzen dute. Argazkietan, Oronoz eta Zigan egindakoak ageri dira. Hlaren 13an Zugarramurdin eta 20an Almandozen elkartuko dira.

ari jendarteak eskatzen dituen erantzunik.

Baztango Geroa Ba-in argi dute Baztanek duen potentziala eta horrek zabal ditzakeen garapen aukera interesgarriak. Berandu baino lehen aukera horiek aztertu eta ga-

ratu behar direla diote, «are gehiago ikusita inguru honetan ere inobilismoa, aktibitate falta eta konformismoa nagusitu direla. Aurrera egiteko beharrezkin tala eginen duten ezaugarriak dira oro har; horiei aurre

egin behar zaie». BGBk horretarako konpromisoa hartu du, «eskualdeko pertsona guztion ongizatea hobetzearen alde, eskualdea modu orekatu eta egokian garatzeko konpromisoan lana egin ez buru belarri».

Gierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORNOZ · MUGAIRI

Lizun
GAZTANDEGIA
Sunbilla · Tel: 948 450 862

ANTXITONEA
Turistak
24 logela bainuzuekin · Apartaketa
Aste giroa eta puzketas · Hant musikala eta TB
Gela berria sukalde eta barne serbizioekin
Braulio Iriarte 16, Elizondo · 948 581 807 · 948 581 853
hostal@antxitonea.com · www.antxitonea.com

kokette
ELIZONDO

BAZTAN

BERTSOLARITZA → AZAROAREN 30EAN ELIZONDON

Aimar Karrikak irabazi du V. Mariano Izeta bertso sariketa

Mariano Izeta zenaren alabaren eskutik jaso zuen txapela iaz Xalto Saria irabazi zuen auriztarrak

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 30ean jo-
katu zen Elizondon Ma-
riano Izeta bertso sari-
ketaren bosgarren edi-
zioko finala. Baraibar eta
Barañainen egin ziren
kanporaketan ondotik,
sei bertsolari aritu ziren
finalean: Aimar Karrika
(Auritz), Iker Goroste-
rrazu (Ituren), Patxi Cas-
tillo (Bera), Egoitz Go-
rosterrazu (Ituren), Jo-
su Sanjurjo (Lesaka) eta
Kotte Plaza (Elizondo).
Azkenean, Aimar Karri-
kak eraman zuen txape-
la.

Elizondoko Kortari-
xar jatetxean 80 bat la-
gunek segitu zuten ber-

tatik bertara finala. Eder-
ki afaldu ondoren, sei
bertsolariek ekin zioten
lanari, Gorka Urtasunen
gidaritzapean. Epaila-
netan, berriz, Mikel Al-
tzuart, Nerea Bruño eta
Josu Etxanobe aritu zi-
ren. Saio polita eta bi-
zia izan zen, bertataru-
takoek gozatu zuten sei
bertsolarien jardunare-
kin eta azkenean epai-
leek Karrikak ariketa
guztietan erakutsi zuen
erregulartasuna eta lan
ona saritu zituzten.

Bertsolari auriztarrak
Mariano Izeta zenaren
alabaren eskutatik ja-
so zuen txapela. Izeta
sariketako bosgarren
irabazlea da. Haren ai-
tzinetik, Jon Barberena,
Oier Lakuntza, Jon
Elizetxe eta Iñaki Ale-
manek irabazi dute Ize-
ta sariketa. Iaz ezaugar-
ri bertsuak dituen Xalto
sariketa ere irabazi zu-
en Aimar Karrikak Goi-
zuetan.

Nafarroako Bertso-
zale Elkartek antolatu



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Izeta Sariaren finalean aritu zen seikotea sari banaketaren ondotik. Aimar Karrika txapelarekin ageri da.

du Izeta sariketaren bos-
garren edizioa eta zere-

gin horretan Baztango
udalaren eta Baztango

Bertso Eskolaren la-
guntza izan du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Erratzuar batek zaindutako kuia ederrak Urruñan

Sortzez Erratzuko Epemendikoa den Piedad Otondok (Urruñara ezkondua, Mu-
rria abizenarekin) argazkian ageri diren kuia edo kalabaza ederrak bildu ditu U-
rruñako bere etxeko baratzetetik. 36 eta 44 kilokoak dira.

Estibaliz


Librazio plataforman 20sala 30€


4 erlaxazio masaje 65€


**Gorputz 19€
autobronzeatutaila**

**JUBILATU, LANGABETU
EDO FAMILIA UGARIKOA -%25
IZANEZ GERO**

*Promozioetan eta lasaieran izan daiteke

ELIZONDO | 948 581 360 | 606 738 466

**KALITATEA
NAHI
DUZULAKO**

**EH
EMILIHERRNAIZ**
URREGINE ORFERRE
ELIZONDO

Eqberti eta urte bertan orl

KULTURA → DURANGOKO AZOKAN

Amaiur 2012 ikuskizuna DVDan argitaratu dute

TTIPI-TTAPA

Joan den uztailaren 21ean, Amaiurren eta abuztuaren 9 eta 10ean Maulen "Amaiur 2012, haien ametsa gurea da" ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten aunitzek. «Gure herriarendako, 1982. monolitoa berreraiki zenean bezala, urte historikoa izan da hau eta, horregatik, Kanalduden eta EITBk egin zuten grabazioarekin DVDa atera dugu» aipatu digute Amaiur 2012 Ekimenetik.

Durangoko azokan, Pamiela eta Nafarroa Bizirik plataformaren estanetan salgai egon zen 12 eurotan. Amaiurren Santxonea tabernan dago eta espero dute poliki poliki toki gehixeagotan uztea.

Dena den, norbaitek igortzea nahiko balu ez

du eskatzea baizik eta 12 euro eta bidalketa gastuak (3 euro gutti goiti beheiti) trasferentzia bidez ordaindu.

Murrizketak Gizarte Zerbitzuetan ere

Gizarte Zerbitzueta-ko batzordeak eskualdeko entitateekin urtean barna koordinatu dira eta murrizketek talde bakoitzean izan duten eragina bildu eta aztertu dute. Horren berri eman zuten azaro hondarrean, jendeak ikus dezan arlo ezberdinetan izan den eragina.

Iraultza bolibarriaraz

Abenduaren 13a, ortzeguna solasaldi-merendua izanen da Venezu-
elako iraultzari bu-

ruz, 2012ko udan Askapenarekin brigadista egon den kide baten eskutik 20:00etan.

Abenduaren 18an, asteartea, *La revolución no será retransmitida* dokumentala eskainiko da Erratzuko lixutegian 20:00etan. Merendua ere izanen da.

Elizondoko Abesbatzaren zozketa

Elizondoko Abesbatzak bere 70. urteurrenaren ospakizunen artean zozketa bat antolatu zuen. Dagoeneko atarra da bi pertsonendako bi hotel gau Bartzelonan eta Liceu-ko edozein ikuskizunetarako bi sarreraren irabazlea. Sunbillako Maria Jesús Etxeberria Ajesta da 3206 zenbakiaren jabea.



ARGAZKIAK: DIARIO NOTICIAS

Ongi merezitako omenaldia jaso zuen Iñaki Otxandorenak Labriten

Iñaki Otxandorenak Asegarre enpresarekin profesional gisara azken partida jokatu zuen azaroaren 24an. Nekez ahanztziko ditu kantxan bizitakoak. Ekaitz Saralegiarekin bikotea osatuta, Rico eta Izaren aurka lehiatu zen. Ez zuen partida irabazi baina, emaitza zen gutxienezkoa. Harmailak pilotariari babesa ematera joandako lagunez beteta zeuden. Lagunek oparitutako txapela beltza jantzita, emaztea eta seme-alabak ondoan zituela, txalo artean agurtu zuten Orozko atzelaria.

ferreteria
Quevedo

TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 • ELIZONDO • Tfnoa: 948 580 234 • Faxe: 948 581 210

ZUGARRAMURDI

KIROLA → ANOETAN IZAN ZIREN

Errealala eta Osasunaren arteko derbia zuzenean bizitu zuten eskolako neska-mutikoek

Hemezortzi gaztetxo eta sei guraso joan ziren azaroaren 23ko futbol partida ikustera

ten. Eta hantxe gan ziren Anoetara gan den azaroaren 23an hemezortzi gaztetxo eta sei guraso. Gustura pasatu zuten, eta golik ikusi ez bazuten ere, denak kontent itzuli ziren: ez baitzuen niork galdu!

Margari eta Koro

Futbol aferak direla eta, bazter hauetan batez ere Osasuna eta Errealala ditugu talde gus-tukoena. Gure eskole-tako haurren artean ere hala da, eta hor ibiltzen dira norgehiagoka kon-tu horrekin. Hori ikusi-ta, Olatz irakasleak (Errealako bazkidea bai-ta) sekulako sorpresa eman zien bere ikasleei: bi taldeen arteko parti-da ikusi ahal izateko 21 sarrera oparitu zizkie-

Jexux Agerren heriotzaren urtemuga

Heldu den abenduaren 24ean urte bat beteko da, herriko alkatea izan zen Jexux Agerre, hil zela. Hori dela eta, urtarilaren 12rako (larunbata) oroitzapen ekitaldi bat antolatzen ari dira.

Egun horretako ilunabarrean izanen da, baina dena ez dago lotua eta xehetasunak aitzinago emanen dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Eskolako neska-mutikoak eta gurasoak Anoetako harmailetan, Errealaren eta Osasunaren arteko derbia ikusten. Ageri denez, bakoitzak bereari animatu zion eta azkenean, denak gus-tura gelditu ziren berdinketarekin.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Herriko musika talde berriak lehen emanaldia eskaini du

Aitzineko bizpahiru urte gogor lanean aritu ondotik, bere lehenbiziko emanaldia eskaini zuen oraindik izenik ez daukan herriko musika talde batek. Taldearen partaideak Joxe, Iñigo, Xabi, Jonfox, eta Iker ditugu. Bertze taldeen kantutak bertsionatzen dituzte, eta bi estilo diferente eskeintzen dituzte: Ikerrek abesten duenean punk aireak kantatzen ditu (La polla, Eskorbuto...), aldiz Joxek abesten duenean pop-rock xuabeago batean aritzen da (Itoiz, The clash...). Azaroaren 24ean Graxiana aterpetxean aritu ziren, eta Baztango "Ufestuen" taldeko teloneroak izan ziren.






Ordoki industrialdea | ARIZKUN
Tel. 948 453 259 | Fax. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com
www.betikopvc.com

%58ko aurrezpena

Gure sistema berriarekin %58ko **AURREZPENA**
lortuko duzu zure etxean



ETORRI GURE INSTALAZIOAK ETA GURE SISTEMA BERRIA IKUSTERA!
Leihoak | Kontraleihoak | Sarrerako Ateak | Itxidurak | Pertsianak | Moskiterak

URDAZUBI

KULTURA → AZAROAREN 24AN LUGARANAN

Arrakasta handia izan zuen Kantu Zaharren Egunka

350 kantuzale elkartu ziren bederatzigarren edizioan

TTIPI-TTAPA

350 kantuzale elkartu ziren azaroaren 24an Dantxarinean Kantu zaharren eguna ospatzeko. 2004an ospatu zen lehenengoz egun hau eta aurten, bederatzigarren edizioan, egun honen arrakasta erabatekoa dela agerian gelditu da. Horren adierazle da, azaroaren 3an goizean sarrerak salgai jarri eta eguerdirako guztiak agortuta zeudela.

Eguerdiko ordu bietan hasi zen bazkaria Lugarana jatetxean eta bazkal ondoren hasi zen gozamina, euskal kantugintzari errepaso ederra eman zioten. *Iturengo arotza* abestiarekin hasi eta *Lepoan hartu ta segi aurrerarekin* segitu... Zortzi orduz aritu ziren kantuan, eta eztarriek ez zuten atse-

denik hartu nahi. Abeslarienez gain, tartean izan ziren, Zubietako Joal-dunak, Leitzako dantzariak, Jalisko Ibarra eta bere tronpetak giro, paregabea sortuz.

Aurten berrikuntzak ere izan ziren eta Euskadi Irratiari, Mikel Laboaren sendiari eta Carmen Deskarga, Angel Mariezkurrena kantuzaharren egunaren antolatzailearen amari, omenaldi txiki bana egin zieten. Gainera, Mahai Inguruko kantuek taldearen bigarren diska ere aurkeztu zuten. Aipatzekoa da diska berria 10 eurotan salgai dagoela eta salmenta bakoitzeko euro bat Bortziriak, Malerreka eta Baztango gizarte zerbitzuetara bideratuko da, beharrezko dagoen jendeari emateko.

Ohiturari eutsiz, *Agur Jaunak* abestiarekin eman zioten akabaila biribila egunari eta datorren urteko Kantu zaharren egunaren espe-roan dira dagoeneko kantuzaleak.



Giro paregabea izan zen Kantu Zaharren Egunean.

ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL



UTZITAKO ARGAZKIA

Alkerdiko besta ospatu dute abenduaren 1ean

Abenduaren 1ean Alkerdiko besta ospatu zuten. Beti bezala Armua jatetxean elkartu ziren, eta Joxe Angelek paratutako giro ederrean bazkari eta afari egin zuten 70 bat lagunek.

HERRIKO
ETXEN
EDITEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
T. 0539342319
Maiten eta Véronique
SARA

BAR
Bortxo
OSTATUA
Zalain • OIERA • 948 630 052

BORTZIRI
UNSION ANAIK
Sukalderako altzariak
Berezu etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

MONTXO OSTATUA
TABAKO-BENDA
Plater kabinistak | Ogitortekoak | Pintxoak | Menuak enkomendatuz
Egunero irekia 09:00etatik 02:30era • Dantxarinetik 2 km. tuta
ANZAN-BORDA • URDAZUBI • 948 599 039

EGUBERRIAK → ABENDUAREN 22AN PLAZARA JAUTSIKO DA ARRATSALDEKO 5ETAN

Hiru eskoletako haurrek ongietorria emanen diote Olentzerori

Eguberri bezperako meza 20:30ean eta Eguberri eguneko 10:30ean

Joana GUERENDIAIN

Abenduaren 22an olentzero Sarako plazara jautsiko da eta hiru eskoletako haurrek ongi etorria emanen diote. Usaian bezala, olentzero eta haurrak herrian barna ibiliko dira oinez eta gero kantuak eskainiko dizkiote. Hitzordua finkatua da arratsaldeko 5etan. Tenore huntan ez dakigu oino ea plazan egingen den edo lur berri gelan.

Eguberriko mezak

Urtero bezala, eguberri



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Olentzerok ez du hutsik egingen Sarako plazako hitzordura.

gariaian bi meza emanak izanen dira elizan. Eguberri bezperako meza gaueko 8 etan ospatuko da eta eguberriko goizeko 10:30ean.

Joko berri txapelketa

Aurtien Joko berri txapelketa 2013ko urtarrilaren 7 an hasiko da eta martxoaren 13 a-

te iraunen. Txapelketa hori polikiroldegian egingen da. Izen emateak abenduaren 1ean hasi dira baina berantean direnzentzat bada hilabe-

te huntako 22a arte, 20 euro galdetua da pertsonaka. Izena emateko ondoko zenbakietara deitu behar da: 06.27.80.68.63 edo 06.09.83.86.46.

Kirol emaitzak

Azaroaren 23-24eko asteburua kargatua izan da gure urtxintxentzat, bi matxa jokatu baitituzte. Ostiralean haien txapelketako matxa jokatu dute Saran Lucq de Béarn-en kontra eta irabazi egin dute 25-23, larunbatean Frantziako koparentzat aritu dira baina galdu egin dute 19-15 Arudyren kontra. Asteburu horretan Basureak ere etxean aritu dira Campeten kontra, 2 ekipek garaipen polit ezagutu dute, erre-serbarentzat 58-5 eta lehena 48-5.

Urruxka landetxeko Joxepi MIURArekin solasean «Emakumeen lanari eta landa turismoari esker bizi dira baserri eta herri aunitz»

Nekazaritza eta abelzaintzak orduan ere bizi zuen krisiari aurre egiteko xedearekin, 1991n landaetxe moduan ireki zuten Elizondoko Beartzun auzoko Urruxka baserria.

Zein izan zen orai 20 urte baino gehiago emakumeen lana landa eremuko turismoaren garapenean?

Nekazaritza sektoreari laguntzeko, Nafarroako Gobernutik landaetxeen afera planteatu

zuten orduan herriz herri eta kanpoan lan gorrik ez zela kontuan hartuta, hortan hasi ginen. Gizasemeak ere badira arlo honetan, ongi lan egiten dutenak gainera, baina normalean emakumeak izan gara kudeatu dugunak. Baserrietan nahiz herri ttikietan garapenerako bidea eman dute landetxeek. Aunitz kasutan, turismoari esker bizirik gaude baserri eta herri hauek. Emakumeen lanarekin lortu zen hori.

Zergatik izan ziren emakumeak sektore hau gehien bultzatu zutenak?

Orduan ere langabezia handia zegoen eta zen lan pixarra errazagoa zen gizonek bilatzea. Lan hau etxean bertan egiten ahal zen eta horregatik uste dut.

Baserriko ateak irekitzeko erabakia erraza izan zen?

Ez dakit aski pentsatu genuen ere! Denendako gauza berria zen. Gobernuarekin 5 hilabeterako kontratua sinatzen zen



eta ez baziren kontent uzten zenuen eta kitto! Horrela hasi ginen, bi gela pixko bat txukundu eta aitzinat. Hurrengo urterako hobekuntzak egin genituen eta 20 urte daramazkigu honetan. Oraindik ere gehiengoak emakumeak gara.



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza furtia: Europa landa eremuetan inbertitzen

SENPERE

GERTAERAK → APIRILERAKO BUKATU NAHI DA

Sei urteko presondegi zigorra emazte bat bortxatu zuenarentzat

S.A.k behin behineko 3 hilabeteko zigorra bete zuen 2008an

Franck DOLOSOR

Sei urteko kartzela zigorra eman dio berriki Pirineo Atlantikoetako epaitegi nagusiak S.A. 41 urteko lapurtarrari 2007an Senperen gertatu zen bortxaketarengatik. Auziak iraun zuen hiru egunetan akusatua bere errugabetasuna erakusten saiatu zen erranez biek, ustezko bortxatzaileak eta biktimak, nahi izan zutela harremana izan. Akusatua- ren abokatuak afera gerokorik gabe uztea eta S.A. xuritzea galdetu zuen froga guti zelakoan. Biktima ez da gogoratzen xuxen zer gertatu zen 2007an bainan biharamunean kolpaturik, eri eta gauza ainitz eskas zituela ohartu zen. Fiskalak 8 eta 10 urte arteko presondegi zigorra eskatu zuen bainan azkenean epaileek zigorra doi bat arindu dute 6 urtekoa emanez. Akusatua behin behineko 3 hilabeteko presondegi zigorra egin zuen jadanik 2008an eta orain kartzelarat itzuli behar izan du.

Lurralde elkargo bereziaz solasean Senperen

Iparraldeko hautetsi gehienek galdetzen dute departamendu berria

sortzea eta 8 eskumen gehiago izatea Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberruan. Urrats hori errepublikaren barnean gauzatu nahi lukete Frantzia egun hauetan egin ari den dezentralizazio prozesuaren baitan. Dena den, aldaketa instituzionalak zorbait traba dauzka bidean ezkerreko gobernuak bi ministrok ezezko borobila eman baitote eskaera demokratikoari. Dena den, hautetsiek lanean segitu nahi dutela argi gelditu zen berriki Senperen ospatu den Lema Eguna gogoetaldian. Ehun lagun hurbildu ziren EAJ-PNBk apailatu zuen gaualdia entzuterat.

Christine Bessonart auzapezaren ustez atea ez da betiko hetsi eta ez da kuraia galdu behar. Bere erranetan hobe da kudeaketa eta erabakiguneak ahal bezain hurbil izatea geroa ahal bezain ongi presartzeko. Beñat Inchauspere Hazparneko auzapez eta kontseilari nagusia-

ren arabera, kirolan bezala, zailtasunak direla-rik indartzen dira ideiak eta asmoak. Alderdi sozialistaren ezezkoa deitoragarria da Inchauspere zentristaren ustez eta ondoko egunetan mobilizatzen segitu behar-ko dela iduritzen zaio.

Azkenik, Manu Bake- ro legegizon eta EAJko kidearen erranetan bi mi-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Lema Eguna gogoetaldia egin zen Senperen.

nistroen ezezkoa erdi sorpresa bertzerik ez da Frantzian jakobinismoa baita nagusi eta ez baita bat batean dezentralizazio sukarra sortu eta hedatu. Oroitarazi zuen galde hunek 200 urte dituela Frantziako iraultza- ren ondotik Biarnoa eta Iparraldea Pirinio

Atlantikoak departamendu- nortzat biltzeko zirenetik. Biltzar hunen biharamunean, Baionan Iparraldeko hautetsien kontseiluak aho batez bozkatu zuen departamendu berria sortzea eta 8 eskumen lortzea galdetzea Frantziako ezkerreko gobernuari.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

35 urteko senpenterren biltzarra

Aurten 35 urte betetzen duten senpenterrek biltzarra izan dute berriki. Lehenik duela lau urte zendu zen Julien Fagoaga adiskidea omendu zuten Senpereko elizan egin zen mezan eta gero elgarrekin afaldu (eta batzuek gosaldu) zuten Ibarrunen. Zorionak eta ainitz urtez!

Ford

ZALAIN MOTOR

ttipi txartela

%5 erab.

DESKONTUA
errekabioetan

Martiko
Poi Zalain, s/n,
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com

Atzeratuak ezin diren ordutegia

DENDA ORDUTEGIA:
astelehenetik
ortziralerara
08:00etatik
17:00etara

Cederna Garalur elkartearen ekintzaileen bilera

Ekintzaileekin solasean

Kixki kaxka



Sustatzaillea: Harritxu Arriuria Jaimerena
Aktibitatea: Oinetakoen konponketa
Helbidea: Maurizio Berekotxea, 12 baxua
Herria: Elizondo
Telf: 636 365292

Nola sortu zitzaizun enpresaren ideia?

Supermerkatu batean lan egiten nuen eta argi nuen, nire enpresa sortu nahi nuela. Eskulanarekin zerkusua zuen zerbitaitan aritu nahi nuen. Oinetakoen konponketan hastea aukera ona zela ikusi nuen, Elizondon zegoen azken zapataria duela 12 urte jubilatuta zelako. Ez nuen ofizioa ezagutzen, beraz, lehenengo pausoa ikastea zen. Tailer askotara jo nuen laguntza eske, baina ez zidaten irakatsi nahi. Iruñeko Mañueta karrikako zapatari baten berri eman zidaten. Ofizioaren sekretu guztiak erakustea onartu zuen eta azkenean berarekin ikasi nuen.

Zer produktu edo zerbitzu eskaintzen dituzu zure enpresan?

Arropa eta oinetakoetan mota guztietako konponketak egiten ditut. Materialak itsasteko garai bateko eta gaur egungo teknikak ezagutzen ditudanez ia edozer konpondu dezaket. Arropei dagokiez, bajuak, kremailerak...

Enpresa sortzeko orduan zein izan da oztopo handiena?

Beldurrak gainditzea. Irakatsiko zidan norbait topatu nuela ikusita-koan, beste guztia erraza iruditzen zitzaidan. Zapatariak prentsa oparitu zidan. Nire enpresaren sorreran garrantzia handia izan dute irakasle horrek eta Izaskun Abriek.

Nola izan zenuen Cederna Garalurren berri?

Nire lehengusinak ileapaindegia du Elizondon eta Izaskuni buruz hitz egin zidan, eskualdeko garapen agenteari buruz. Berak enpresaren ideia gauzatzan lagundu dit.

Zein aholku emanen zenioke bere enpresa sortu nahi duneari?

Norbaitek bere enpresa sortzeko asmoa badu animatu dadila.

Kixkur



Sustatzaillea: Lourdes Carbajo Pinto
Aktibitatea: Ileapaindegia eta estetika zentrua
Helbidea: Karrika nagusia, 4 B
Herria: Iruñita
Telf: 948 452566

Nola sortu zitzaizun enpresaren ideia?

Duela 11 urte hasi nintzen ileapaintzaile lanean eta egunero Iruñera joaten nitzen lanera. Hiru seme alaba ditut, etxe baten ardura... eta irabazten nuen diruarekin ezin nien gasolina, zaintzaile baten... gas-tuei aurre egin. Orain herrian nago, etxe ondoan egiten dut lan eta ni naiz nire nagusia. Erosotasuna eta bizi kalitatea bilatzen nituen.

Zer produktu edo zerbitzu eskaintzen dituzu zure enpresan?

Ileapaindegiko zerbitzuak, amoniakorik gabeko tintea, estetika, autobronzeadoreak, manikurak, depilazioa, pedikurak eta mikropigmentazioa. Azken hau 3 edo 4 urteko iraupena duen makilajea da, gaixotasunak edo arazoak dituzten pertsonentzat oso egokia dena.

Zein izan zen eman zenuen lehenengo pausoa?

Lokala hartu nuen lehenengo, gero altzariak erosi eta jadanik ez zegoen gibelera igiterik. Senarrak eman zidan behar nuen bultzada. Nola nenbilen zekien eta krisiagatik ez nintzela ausartzen.

Enpresa sortzeko orduan zein izan da oztopo handiena?

Ez nuen oztoporik izan, aldaketa hoberako izan zen hasieratik.

Nola izan zenuen Cederna Garalurren berri?

Ahoz ahokoaren bidez jakin nuen Cederna Garalurren berri. Senarrak ere, bere enpresa duenez, dirulaguntzen inguruan asko daki.

Zein aholku emanen zenioke bere enpresa sortu nahi duneari?

Beste norbaitentzat lanean ari badira eta irabazi gutxi eta buruhauste asko badituzte, baloratu dezatela beraien enpresa sortzeko ideia. Krisia egon arren, beharrezkoa da jendeak enpresa berriak sortzea.

Zubimuxu



Sustatzaillea: Irune Zabala Goizueta
Aktibitatea: Turismoa, aterpetxea
Helbidea: Herriko plaza, 10
Herria: Goizueta
Telf: 687 288680

Nola sortu zitzaizun enpresaren ideia?

Udaletxearena da ostalua eta kudeatzaile bat behar zen. Postu hori herriko norbaitek betetzea egokiagoa zela uste nuen eta horregatik aurkeztu nuen nire proiektua. Bi haur ditut eta ordurarte beti beste haurrak zaintzen lan egiten nuen. Nire senarrak animatu ninduen. Eskoletatik haurrak etortzen badira, Goizueta erakustea polita izan daitekeela pentsatu nuen.

Zer eskaintzen diezu bezeroei?

30 lagunentzako lotarako eta jateko lekua, egongela, ordenagailu lekuak, interneta eta lorategi ederra ditu. Pentsio osoko zerbitzua ematen dugu, herriko bi jatetxeekin elkarlanean.

Bisitariei jarduerak eskaintzen dizkiezue?

Bai. Mendi ibilaldiak, betizuen ganadutegira bisitak, zintzarri artisautea gertutik ikusi... Taloak egiten ikasteko tailerrak eta talo-afariak ere antolatuta litezke.

Enpresa sortzeko orduan zein izan da oztopo handiena?

Ezagutera ematea. Cedernan teknologia berrien inguruko kurtso bat egiten ari naiz, blogen bitartez publikitate egiteko.

Cederna Garalurrek zertan lagundu zaitu?

Gestio administratibo eta fiskaleko kurtsoak egin ditut beraiekin. Teknologia berrietara egokitzeko orduan ere asko lagundu didate. Gainera, edozein ekimen antolatzan dutenean, beti jakinaren gainean jartzen naute.

Aholku bat.

Marketin plana egitearen garrantzia azpimarratuko nuke. Hasieran komunikazio kanpaina indartsu bat egin behar denez, aurrekontuen zati bat horretara bideratu behar da.

SMI



Sustatzaillea: Judith Alberich Daroca
Aktibitatea: Enpresa coachinga
Helbidea: San Martin karrika 20
Herria: Artaiz
Telf: 668 880914

Nola sortu zitzaizun enpresaren ideia?

Jakin-mina sortu izan dit betidanik coachingak. Psikologo lanak egitea zela uste nuen, baina ez dela hala ikusi dut. 50 urte lanean daramatzen frankizia baten babespean eman nuen pausua. Beraiekin elkarlanean aritzea proposatu zidaten. Horrela, ez nuen hutsetik hasi beharrik izan.

Zerk bultzatu zintuen pausu hau ematera?

23 urte nituenean sortu nuen lehenengo enpresa. Gerora, hiru enpresa sortu ditut eta mundu hau gustuko dudala dakit. Besteentzat lan egitea ongi dago, baina autonomia izatea aberasgarriagoa da.

Zer eskaintzen diezu bezeroei?

